



ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus



2018ko martxoaren 8a | XXXVIII. urtea | 705. zenbakia

Gehigarri berezia

Ezkontza → 25-36

ESKUALDEA → 11

Altsasuko gazteen aldeko
martxa martxoaren 10ean

DONEZTEBE → 18

Baztan-Bidasoko azoka
martxoaren 10ean eta 11n

GOIZUETA → 24

'Goizuetan lan eta bizi'
bigarren jardunaldia

ZIGA → 40

Haziaren Eguna
martxoaren 10ean

SENPERE | Spuc lasterka taldearen 10. urteurrena Ospakizuna eta kirola bat eginik

Senpereko Spuc lasterka taldearen hamargarren urteurrenaren harira, mendian oinez eta lasterka ibiltzeko hainbat hitzordu antolatu dituzte. Martxoaren 10ean eta 11n hiru lasterketa eta bi mendi itzuli egingen dituzte. → 51



BORTZIRIAK | Emakumezkoak lerro dantzetan

Iganderoko ilusioa



ERREPORTAJEA → 4-5

50 eta 85 urte bitarteko Bortzirietako hainbat emakumezko igandero biltzen dira Lesakan lerro dantzetan aritzeko. Marisol Irigoien lesakarra duela zortzi bat urte hasi zen lagunartean lerro dantzak erakusten, baina ustekabean, arrakasta handia izan du ekimenak. Sei-zortzi lagunekin hasi zena, gaur egun, 80 bat emakumezkoren hitzordu bilakatu da. Gainera, gero eta gehiago dira eta guztiak bat datoz: «gustura eta kontent gabilta».

Franck DOLOSOR | Senpereko kazetaria

«Euskal kantagintzaren aitzindari izan zen Estitxuri bere tokia ematea izan da helburua»

ELKARRIZKETA → 3



ZOKKETAK → 60



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra edo
idatzi info@ttipi.eus
helbidera.

SUKALDE ETA PARETAKO ARMAIRUAK NEURRIRA EGITEN DITUGU

ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA

AMETS

C/Sastrin 2,3,4 BERA | 948 630 537 | amets@mueblesamets.com | mueblesamets.com

*** Martxo ***

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 948 012 012 telefonon edo www.berakoagenda.eus

03 LARUNBATA	KANTALDIA NAFARROAKO HAUR ETA GAZTETXO KANTARI JAIALDIA 18:00 Kultur Etxea <small>Antolatzailea: Euzkal Kantuzaleen Elkarte</small>
06 ASTEARTEA	BERAKO BESTETAKO BILERA IREKIA 18:30 Beralandetan
09 ORTZIRALEA	SOLASALDIA EUSKARALDIA BORTZIRIAK, EUSKALDUNAK NAHI DITUZU? EGINEN DUGU? KIKE AMONARRIZ 19:00 Beralandetan
10 LARUNBATA	MERKATUA BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA 10:00-13:00 Ricardo Baroja Eskolako arkupeetan
10 LARUNBATA	KALEJIRA ALTSASUKO HERRIAK NAFARROARI BEGIRA KALEJIRA (ALTSASUKO GURASOAK) 20:00 Kiroldegi aitzinean (irteera eta bukaera)
17 LARUNBATA	KONTZERTUA MUGALDEKOAK TALDEA 20:00 Kultur Etxean Sarrera: 6 € (aitzinetik salgai Agara prentsan) Argibide gehiago: www.mugaldekoak.com

18 IGANDEA	ANTZERKIA BIZIMIÑAK (ITZEL KONPAINIA) 18:00 Kultur Etxean Sarrera: 5 € (aitzinetik salgai Agara prentsan)
23 ORTZIRALEA	IPUIN KONTALARIA HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA ESTITXU MENTABERRI 5-8 urte 18:00 Herri Liburutegian
24 LARUNBATA	ANTZERKIA VINI, VIDI, VINCI HIRUKLUN TALDEA 19:00 Kultur Etxean

60 eta 70eko hamarkadetan euskaraz jendurrean abesten ausartu ziren lehendabiziko artean izan zen Estitxu Robles. Beskoi-zeko abeslaria hil zenetik mende laurdena

pasata, Franck Dolosor kazetariak, Baleuko etxearen laguntzaz eta Iban Gonzalez eta Ramon Larrabasterren lankidetzarekin, omenaldi gisa, dokumental bat egin dio. Orain, han eta

hemen, ezker eta eskuin zabalduz, Estitxu ezagutzen dutenen gozamenerako eta ezagutzen ez dutenei ezagutzera emateko bideak urratzen hasiak dira.

Franck Dolosor | Senpereko kazetaria

«Herri normaldua bagina Estitxu fikzioraino hedatua legoke»

N. BAZTERRIKA | SENPERE

Noiz ekin zenioten proiektuari?

Udaberrian hasi ginen, baina nik aspalditik go-goan nuen proiektua zen. Pertsonalki ezagutu ez banuen ere, bera aipatzean erreakzio soka luzea etortzen zela ohartua nintzen; eta lekukotasunak bilduz, aipamen horiei bide eman nahi nien. Proiektuan Iban Gonzalez izan dut bidelagun, gidoi eta elkarrizketak irudiz hornitzeko. Bien elkarlanarekin, uste baino lehenago egin dugu, otsailerako aurreikusten genuena.

Zer izan duzue helburu?

Helburu nagusia Estitxu-ri bere tokia ematea izan da. Euskal kantagintza-aren aitzindari izan zen: euskaraz kantatzen lehendabizikoetakoa izateaz gain, emaztekiaren, emazte bakarlaria, garai hartan euskaraz, bakar-lari kantatzen... Euskararekiko eta Euskal Herriarekiko konpromiso handia zuena. Bertzeak bertze, haurrendako ipuin, gabon kanta eta ikusgarriak egin zituen, Bilbo erdaldunaren erdigunean. Pertsona handia izateaz gain, kantari hoberenetakoa eta aunitzen eredu izan da: Amaia Zubiria, Maite Idirin, Pello Zabala eta Antton Valverde-entzat, adibidez. Herri normaldua bagina, horrelako historia duen



UTZITAKO ARGAZKIA

Franck Dolosor eta Iban Gonzalez, Estitxuren senideekin Bilboko estreinaldian.

norbaitek dokumentala aspaldian izateaz gainera, bere irudia fikziora eramanez lukete.

Ibilbide labur bezain oparoa...

Hogei bat urtez hamabortz disko egin zituen eta Euskal Herri osoan ibili zen, bereziki, euskaraz, baina baita gaztelaraz ere. Sufirimenduz jositako ibilbidea egin zuen, zentsura jasan baitzuen frankistengandik. Denbora berean, Frantziako telebistan erregina moduan gonbidatzen zuten. Espainiar telebistak eginiko saioak ere izan ziren, ondotik bota zituztenak. Hortaz, Frantziako lekukotasunen bidez, euskal ondarea bildu dugu.

KRIKAK

«Batzuek gaztelaraz kantatu izana kritikatzeko diote. Nire ustez, ordea, alderantziz begiratu behar genuke: nork grabatu du euskaraz Venezuelan?».

ZEINAH IKSULERENDAKO

«Dokumentaleko testigantzak euskaraz izanagatik, erdaldunek berdin-berdin ikus eta uler dezakete. Azken batean, mezua iruditan eta kantetan islatzen da, eta horiek unibertsalak izateaz gain, biziki dinamikoa egiten dute».

Oparotasuna gorapatzeko elkarrizketa andana...

Familia, hobekien ezagutu zutenak ez ezik, lagun, lankide, bera lagun duen musikariak eta azken elkarrizketa egin zion Jaime Otamendiren erranak bildu ditugu. Azken batean, bakoitzak alde bat ezagutu zuenez, denen artean osatu dugu bere oroitzen bizi-bizia. Guztien hitzetan ikusten dira sentimenduak. Joxe Mari Iriondok berak sekula ez du jendurrean negarririk egin eta Estitxu aipatzean malkoak zetozkion, hori 25 urte pasa ondotik... Familiakoek pena izatea normala da, baina kazetari batek kontaezin di-

ren jende parrastadarekin hala sentitzeak badu zer erranik.

Nolakoa izan da jendearen harrera?

Bilbokoa biziki egun handia izan zen. Estitxuren familia osoa eta hautetsiak hor baitzuden. Publikoaren alde-rik ere, harrera harrigarria izan zen. Dokumentaleko momentu indartsu batean, publikoa txalotzen hasi zen... Nik nehoiz ez dut gogoratzen, ez zineman eta ezta bertze proiektuoren batean ere, pelikularen denboran, bukatu aitzinetik, publikoa txaloka hasia... Toki batetik bertzera publikoaren harrera aunitz aldatzen da. Komunikazioan gaude-nez gero, hartu-eman hori gauzatu dela ikusteak izugarri pozten nau. **Baduzu etorkizunerako proiekturik buruan?** Orain lehentasuna eskuin eta ezker dokumentala erakustea da. Nik proiektuak sorkuntza gisa hartzen ditut, beraz, gus-tuko garirik etorri gero hartuko dut. Baina gaurko egunean halako gai sendorik ez dut ikusten. Egia da, bertzalde, Gernikako batailoia dokumentalean bildutako lekukotasunekin liburu bat egiten hasi nintzela udan, eta hori berrartuko dut ahal dudanean. Senperen erretratu sail bat ere hasia dut... beraz, badut non ari.



Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Etxalarko hainbat emakume igandero biltzen dira Lesakako frontoian lerro dantzak dantzatzeko.

BORTZIRIAK → 50 URTETIK GOITIKO EMAKUMEZKOAK

Emakumeak musikaren erritmora dantzan

Bortzirietako 80 emakumezko astero biltzen dira Lesakan lerro dantzak ikasteko

Marisol Irigoien lesakarra duela zortzi bat urte lerro dantzak erakusten hasi zen lagunartean. Ustekabea, ordea, arrakasta

haundia izandu du ekimenak, eta sei-zortzi lagunekin hasi zena, gaur egun 80 bat emakumezkoen hitzordu bilakatu da.

G. PIKABEA

Inork guttik pentsatuko zuen lagunartean ongi pasatzeko asmoz hasitako ekimen hura hain urruti ailegatuko zenik; ezta guztiaren gidari izan du den Marisol Irigoien lesakarrak ere. Baina halaxe izandu da.

Duela zortzi bat urte hasi zen guztia, 2010ean. Lesakako sei-zortzi emakumezko lerro dantzak ikasten hasi ziren Irigoienekin, Lesakako Beti Gazteren egoitzan. Gaur

egun, ordea, hamar aldiz gehiago dira: 80 bat emakumezko biltzen dira dantzak horiek ikasteko. Beti Gazteren egoitza ttiki gelditu zitzaielako Lesakako frontoian egiten dute hitzordua, igande arratsaldetan: 17:00etan hasi berriek eta 18:15ean gainerakoek. 20:00 arte gelditu gabe aritzen dira, musika paratu eta dantzan.

Lesakan egiten dute hitzordua, baina ez dira lesakarrak bakarrik: «Bortzirietako herri guztietako emakumeak gara», dio Irigoienek, «50 urtetik hasi eta badira 80 urte pasatuak dituztenak ere bai».

Inork hala zehaztu ez badu ere, emakumeak dira oraingoz animatu direnak, baina Marisolek garbi dio, «atea denentzat irekia da». Beti Gazte Elkartearen baitan egiten duten ekimena denez, elkarteko bazkide izatea da lerro dantzetan parte hartzeko bete beharreko baldintza bakarra.

Ikusi, ikasi eta erakutsi Irigoienek Gasteizko Florida parkean izanduen lehenbiziko aldiz lerro dantzen berri. Azaldu digunez, «gehienetan banaka eta denek koreografia berdina eginez, lerroan egiten diren dantzak dira». Ikusi zituenean atentzioa eman omen zioten, eta gerora, «hor barna joandakoan, hoteletan dantza horiek egiten zituztela ikusitokian», ikasteko grina piztu zitzaion. Horrela hasi zuen hain ezagun egin duen bidea. «Nire senarra zena, Salvador lantzi, Lesakako Beti Gazte Elkarteko lehendakaria zen orduan, eta dantza horiek grabatzera Gasteizera joan zen. Grabazio horiei begira ikasi nituen lerro dantzak», dio lesakarrak. Ikusi, ikasi eta erakutsi. Ikasitako lagunartean zabaltzen hasi zen, eta bide batez, «tar-te on bat pasatzen».

IKUSI, IKASI ETA ERAKUTSI

Ikusi, ikasi eta erakutsi Irigoienek Gasteizko Florida parkean izanduen lehenbiziko aldiz lerro dantzen berri. Azaldu digunez, «gehienetan banaka eta denek koreografia berdina eginez, lerroan egiten diren dantzak dira». Ikusi zituenean atentzioa eman omen zioten, eta gerora, «hor barna joandakoan, hoteletan dantza horiek egiten zituztela ikusitokian», ikasteko grina piztu zitzaion. Horrela hasi zuen hain ezagun egin duen bidea. «Nire senarra zena, Salvador lantzi, Lesakako Beti Gazte Elkarteko lehendakaria zen orduan, eta dantza horiek grabatzera Gasteizera joan zen. Grabazio horiei begira ikasi nituen lerro dantzak», dio lesakarrak. Ikusi, ikasi eta erakutsi. Ikasitako lagunartean zabaltzen hasi zen, eta bide batez, «tar-te on bat pasatzen».

DANTZAK BAINO GEHIAGO

Hutsik egiten ez duten hitzordua izaten da igande arratsaldetakoa. Baina ongi pasatzea baino zerbait gehiago da emakume horientzat: «alde batetik, mugimendua

lantzen dugu; bertetik, oroimena ere aunitz lantzen dugu. 23 koreografia ikasi ditugu eta denetaz oroitu behar dugu; harremanak ere egiten ditugu eta horrez gain, apustuei aurre egiten diegu».

Entsegu tokitik plaza ateratzea izan da erronketako bat. Joan den urtean, Etxalarko bestetan, Berako Agerrako bestetan eta Lesakako ferietan saioak eskaini zituzten. «Lotsa alde batera utzi eta plazara dantzatzera ateratzeko erronka berri bat izandu zen guretzat, ez baikinen behin ere plaza batera atera», dio Irigoienek. Baina «esperientzia polita» izandu zela aitortu digu. Are gehiago, ez dute emanaldi gehiago egiteko atea itxia, eta erran digunez, beharrien arabera moldatzen dira: «eskatzen duguna egiten dugu, eta dantza guztiak egiten baditugu ordu bat eta erdiko saioa egiten ahal dugu».

Erakusteko lana ez da arrotza Irigoienentzat, irakaskeriaz izandua baita urte aunitzez. Ikasleen adina aldatu zaio dantza eskola hauekin, baina bere irudiko «egin beharrekoa



ARGAZKIA: G. PIKABEA

ez da hain desberdina. Matematika ala dantzak erakutsi, metodologia berdintsua da». Hala ere, duela gutti, sistema aldatu egin dute eta «dantza aunitz dakizkitenek sartu berriak direnei erakusten hasi dira».

Agerikoa da Irigoienek egin duen eta egiten ari den lana, nahiz eta berak nahiago duen beretzat ere «hagitz esperientzia ona» izaten ari dela nabarmendu: «emakume horientzat ona izanen da, baina niretzat ere bai. Nire denbora bete nahi dut eta gisa honetara, gauza interesgarri batekin betetzen dut. Hagitz gustura nago». Baina ez bera bakarrik: «jendea hagitz kontent dago, ez dute faltatzen eta hori zerbaiten seinale da».

Poz hori bistakoa da igandero-igandero Lesakako frontoira hurbiltzen diren emakume horien aurpegietan, adin eta ideia diferenteak izanagatik, ilusioa eta irria baitira denen gainetik nagusi. Eskuak goiti eta beheiti ibiliz, hankak eta gorputza alde batera eta bertzer mugituz, abanikoak astinduz... gozatu egiten dutelako.

LERRO DANTZETAN ARI DIREN EMAKUMEEKIN SOLASEAN



Mari Carmen LEIZA BERGARA

«Lerro dantzei esker jende aunitz ezagutu dut, eta gainera, koordinazioa lantzeko hagitz ona da»

Lagun batek animatuta hasi zen Mari Carmen aranztarra lerro dantzetan, orain dela urte bat eta erdi, eta hasi bazen hasi, orain «ikaragarri gustura» dagoela aitortu digu, «hagitz aunitz eman omen dizkio ekimen honetan parte hartzeak: «jende aunitz ezagutu eta lagunak egin ditut eta gainera, koordinazioa lantzeko hagitz ona da».



Mertxe IANTZI CENOZ

«Hasieran, ikastea zaila dela ematen ahal du, baina ez da hala, hartzeko erraza da»

Beran bizi bada ere, taldeko iganertziar bakarra da Mertxe, eta horregatik egin die herritarrei animatzeko dei berezia. Hasi berria da, «urtarilean hasi nintzen, oraindik gutti dakit, baina aunitz gustatu zait. Gorputzarentzat eta buruarentzat hagitz ona da eta kontent egoten laguntzen du». Gaineratu digunez, «hasieran, zaila dela ematen ahal du, baina ez da hala, hartzeko erraza da».



Mari Carmen ERKIZIA ALMANDOZ

«Buru eta gorputza lantzen ditugu eta gisa berean, izugarri alaiagarria eta polita da»

«Gazte eta adinekoei» gomendatuko lizkieke lerro dantzak Beran bizi den Mari Carmen lesakarrak, baina «bereziki adinekoei». Orain urte bat eta erdi hasi zen, «auzoan solasean hasi eta dantzak betidanik gustatu zaizkidanaz, apuntatzea pentsatu nuen». Kontent dabil geroztik, eta alde on aunitz ikusten dizkio: «burua eta gorputza lantzen ditugu eta izugarri alaiagarria eta polita da».



Mertxe DE BENITO RAFART

«Adin eta ideia diferentetako jendea elkartzen gara; ez gara berdinak, baina ederki moldatzen gara»

la-ia taldea sortu zenetik dabil Mertxe lesakarra lerro dantzak ikasten eta «hagitz gustura» dago. Urteekin taldea nola hazi den ikusi du, eta horri esker, «sortzez Erriberakoa izanda, bertze herrietako jendea ezagutu dut». Gustuko du «adin eta ideia diferentetako jendea elkarrekin ikustea. Ez gara berdinak baina ederki moldatzen gara». Halere, gizonetakoak animatzea nahiko luke.



Anabel GOIENETXE ARBURUA

«Batez ere gure adinean daudenei lerro dantzak ikastera etortzeko aholkatuko nieke»

Duela bi urte eta erdi hasi zen Anabel etxalartarra lerro dantzak ikasten. Ordura arte ez zuen sekula halako dantzen berri izana, baina musika eta dantza gustukoak dituen bezala, probatzea erabaki zuen. Ez da damutu horretaz, «hagitz kontent» dagoela aitortu baitigu. Gehiago ere kontatu digu: «jendeari, eta batez ere gure adinean daudenei, etortzeko aholkatuko nieke».



Isabel MARITXALAR ITURRIA

«Hagitz kontent nabil eta posible dudan bitarte segitu nahi dut lerro dantzetan»

85 urterekin taldeko beteranoa da Isabel lesakarra, baina adina ez da inondik inora muga bertzeekin batera lerro dantzetan ibiltzeko. Orain dela bi bat urte hasi zen, eta onartu digunez, «kontent» dabil, «gustura etortzen naiz». Gainera, lerro dantzei esker, «gorputz osoa mugitu eta burua lantzen dugu», nabarmendu digu. «Posible dudan bitarte» segitu nahi omen du.



Nire txanda
Monika AGIRRE

Pantera

Animalia zinez ederra da pantera: dotorea, misteriozua, bakartia eta kolore beltz disdiratsukoa.

Bortitza eta zakarra dirudien arren, bere burua arriskuan ikusten duelarik, bakarrik erasotzen omen du. Arrazoi horrexegatik, 1966ko Ameriketako Estatu Batuetan, izen horrekin bataiatu zuten beltzen eskubideak defendatzen zituen mugimendua: Pantera Beltzak.

Autodefentsarako zen alderdi hura gizonez zein emakumez osatua zegoen. Areago, azken horiek alderdikideen erdia baino gehiago ziren. Emakumeen eta langileen eskubideen alde ere borrokatu ziren, eta, hala, aktibista garrantzitsuak nabarmendu ziren bertan; errate baterako, Angela Davis.

Martxoaren 8ko zenbaki honetara, aproposak iduritu zaizkidan Davisen aipu pare bat ekarri nahi izan dut:

- «Mundua errotik aldatu ahalko balitz bezala jokatu behar dugu. Eta hori, une oro egin behar da».
- «Ez naiz aldatzen ahal ez ditudan gauzak onartzen ari, onartzen ahal ez ditudan gauzak aldatzen ari naiz».

Ezpala

Aitor AROTZENA

Esistitzen ez denaren artea

Hiruko Santua irudikatzen duen Grecoren margolana ikusmin bezala begiratu du Pradoko museoan, The Beatles-en *Yellow Submarine* mugikorrean gozo aditzen duen bitartean. Auzoko zine-forumean *Alien* filmaren bosgarren zatia ikusi du ikaraz. Baina Santiago Sierraren *Preso politikoak gaur egungo Espainian* izeneko artelana ezin du sufritu: 'Hemen ez da halakorik esistitzen' dio.

Nabarmentzekoak



Itsaso FAGOAGA
Skeet olinpikoa utzi du

Espainiako txapelkun bederatzi aldiz izan eta Espainiako Kopa zortizitan eta Erregearen Kopa seitan irabazi ondotik, skeet olinpikoa uztea erabaki du lesakarrak, 27 urterekin.



Alberto BARBERENA
Nafarroako Neguko Triatloia

Erreka Triko kirolari elizondarra bigarren izan zen otsailaren 25ean Nafarroako Neguko Triatloi txapelketan. Egun berean 40 urte bete zituen, beterranoetan txapelkun izan zen.



Iker SALABERRIA
Malerrekakoan txapelkun

Joan den urtean azpitxapelkun izan zen, baina aurten, Malerrekako pilota txapelketan elite mailako txapela jantzea lortu du Errekako aurrelari goizuetarrak, Mari-zkurrenarekin batera.

Atzera begira → 2008-III-13 • TTIPI-TTAPA 466. zk



Larretxeatarrak urrez jantziak

Duela hamar urte Binakako Urrezko Aizkora irabazi zuen Donato Larretxeak elite mailan, Aitzol Atutxarekin bikote eginez. Gazte mailan ere Oihan eta Garikoitz Larretxea lehengusuek irabazi zuten txapela martxoaren 1ean Azpeitian jokatutako finalean. Beraz, egun borobila izan zen Larretxeatarratzat. «Hiru txapel daramazkigu etxera, eta hau gogoan izateko modukoa da», adierazi zuen Donatok. Oihan eta Garikoitz gazteek, berriz, zera zioten: «Orain arte ikasitakoa aita eta osabari zor diegu: egurra mozten, aizkorari tiratzen, plazetan ibiltzen... Dakigun guztia beraiei zor diegu».

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus



Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola, Nerea Bazterrika **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Iruñe Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Martin Bertiz, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Jaione Ariztegi, Jaione Mindegia, Nerea Mortalena, Pierre Bastres

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztexea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua



Kolaborazioak

Oharkabeko menpekotasunak

Zuhaitz BELOKI LEITZA

Izan drogarekiko edo izan beste pertsona batetiko, menpeko izateak aske ez izatera eramaten gaitu. Gainera, norbera nekez ohartu ohi da zerbaiten menpeko dela, gertuko norbait horretaz jabetu eta ikusarazten dion arte. Baina zer gertatzen da gertukoak ere menpekotasun horren jabe direnean?

Teknologiaren gorakadarekin batera, beldur naiz ez ote garen horrelako egoera batean erori. Eta ez naiz teknologiarekiko orokorrean daukagun menpekotasunaz ari, nahiz eta horrek ere askorako emango lukeen. Teknologia jabedunarekiko daukagun dependentziak ari naiz. Nork ez du ordenagailuz idazteko Microsoft konpainiaren Office tresna erabiltzen, edo bere ordenagailuan konpainia berberaren Windows sistema erabiltzen?

Denoi gertatu zaigu, umetatik tresna jakin batzuk erabiltzera ohitu gara, eta behin trikimailu guztiak ikasi ditugula iruditzen zaigunean, kosta egiten zaigu aldatzea. Baina benetan izan al dugu aukerarik zein tresna erabili nahi izan ditugun erabakitzeko? Aipatu dudan konpainiak, esaterako, musu-truk banatzen dituzten produktuak eskolatan, behin ikasle izateari utzitakoan beren produktuen truke izugarritzako dirutzak ordainaraziz. Era berean, behartu egiten gaituzte ordenagailu berriekin batera Windows-en lizentzia erostera, hortik kanpo dagoen guztia ezagutzea oztopatuz. Horrela, egin digutenaz jabetzen garenerako, haiekiko daukagun menpekotasuna erabatekoa da.

Baina zorionez, badago horri aurre egiten dion eta oso zabalduta dagoen mugimendu bat. Software libreaz ari naiz, konpainiek ordenagailuen bitartez gu kontrolatu dez, guk programen bitartez ordenagailuak kontrolatzea helburu duena. Tresna gardenak dira, kodea ere publiko jartzen baita edonork ikusi edo bere beharretara egokitu dezan. Eta hori guztia dohainik.

Hala ere, hain barneratuta daukagun arazoei aurre egiteko ezinbestekoa da epe luzera jokatzeko. Horregatik iruditzen zait hain garrantzitsua eskolatan arreta berezia jartzea, eta hausnartzea ea benetan bide onetik ote goazen gure haurrak teknologia jabedunaren menpeko egitera eramanez.

«Behartu egiten gaituzte ordenagailu berriekin batera Windows-en lizentzia erostera, hortik kanpo dagoen guztia ezagutzea oztopatuz»

«Software libreaz ari naiz, konpainiek ordenagailuen bitartez gu kontrolatu dez, guk programen bitartez ordenagailuak kontrolatzea helburu duena»

Guttiengoak gehiengoak gara eta ez gara uste bezain ttikiak

Maialen SOBRINO LOPEZ | Garabide Elkarteak

Esker mila aunitz izanen dira gure lehenbiziko hitzak, aldi behin tarte hau Garabide Elkarteari eskaintzeagatik. Orri arteko estreinaldia dugunez, saiatuko gara argitzen nor garen eta zer egiten dugun.

Hasteko, Garabide Gobernu Kanpoko Erakundea da eta kooperazioa da gure lan alorra. Duela dozena bat urte, sortu ginelarik, euskal lankidetzaren birpentsatu nahi izan genuen, kooperazioan nagusi den asistentzialismotik urrundu eta hizkuntza garapenaren zentrora ekartzeko. Hizkuntza lankidetzaren deitzen diogu horri, hain zuzen ere, munduko hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuen bidelagun izan nahi baitugu, euskararen esperientziatik abiatuta.

Jakintza eta bizipenen trukea, nagusiki, Ameriketako hizkuntza komunitateekin egiten dugu: Mexikoko yukatango maiak eta nahuatl-ak, Guatemalako kaqchikelak, Ekuadorreko kitxwak, Boliviako aimarak eta guaraniak, Txileko maputxak eta Kolonbiako nasak. Horrez gain, Rifeko amazighekin, kurduekin eta Poloniako kaxubiarrekin elkarlanean ari gara. Beraz, formazio eta aholkularitza proiektuen bidez zuzenean partatzen ditugu harremanetan euskalgintza eta komunitate indigenak, batzuetan Euskal Herrian, bertzeetan tokian-tokian. Horrela, batetik, esperientzia arrakastatsuek elkarren artean partekatzea eta, bertetik, etorkizunerako ametsak herrien arteko auzolanen eraikitzen hastea lortzen dugu.

Munduko hizkuntza gehienak desagertzen diren joaki dira geroz eta agudoago, beraz, batera saiatu behar dugu denena den korapilo hau laxatzen. Euskal jendarteak azken hamarkadetan joera horren kontra egiten asmatu du, neurri batean bederen, eta hortaz uste dugu funtsezkoa dela euskaldunendako gure hizkuntzaren biziberritze prozesua ongi ezagutzea, balioan partatzea eta, bidelagunen ilusioaz bustita, euripean bada ere, bidea egiten segitzea.

Akitzeko, lerro hauek probestu nahi ditugu gure lana posible egiten duen Euskal Herriko laguntzaile sareari eskerrak emateko, bai bazkideei, baita enpresa eta erakundeei ere. Eskualdean Baztango Udala izan dugu oraintsu arte zutabe nagusia, eta berriki, Bortziriako Euskara Mankomunitateak ere gehitu zaigu. Bihotzez, mila esker hizkuntza lankidetzaren aldeko apustua egiteagatik!





Irakurleak mintzo

Baztan, Malerreka eta Bortzirietako emakumeok planto!

Ixiar Elortza Jauregi, Irati Lujua Etxenike, Aiala Zubietza Bertiz, Gotzone Matxiarena Aldalur, Eneritz Rekarte Bengoetxea, Ines Matxiarena Aldalur, Marga Matxiarena Aldalur, Amaia Agirre Iribarren, Lorea Flores Compains, Ekhine Larralde Lertxundi, Iratxe Batiz Barzena, Ainara Etxabide Sagartzazu, Endara Mitxelena Rekondo, Idoia Gillenea Dendarrieta, Elurre Iriarte Bañez, Jaione Iriarri Goienetxe, Aitziber Esnaola Urkia, Garazi Conde Orube, Oianko Garde Jaunsaras, Ainara Gaztelu Garde eta eskualdeko 30 emakume gehiago

Lehenengo urtean, 70 herrialde baino gehiagotako emakumeek*, nazioarteko emakumeen* grebarako deialdia zabaldu zuten, emakumeen* kontra indarkeria eta desberdintasun molde bizkorki eragiten duen munduaren aintzinean.

Aurten, martxoaren 8an Euskal Herriko mugimendu feministak ere bat egin du EMAKUMEOK PLANTO aldarrikapenarekin, baita Baztan, Malerreka eta Bortzirie-

tako emakumeok* ere.

Sistema honek sexuaren arabera lan banaketa bultzatzen du, eta ez hori bakarrik, feminizatutako ogibideak eta bizitzaren iraunkortasunarekin eta zaintzarekin lotutako lanak ezkutatu eta gutxiesten ditu (heziketza, bizirau-penerako nekazaritza, menpekotasun egoeran duden pertsonen arreta...). Gainera, sistemak ez ditu emakumeen* enpleguak modu berean baloratzen, adibidez gisa, erratekoa da, guk hemen, Hego Euskal Herrian, urtean gizonek baino 7.680 euro gutiago kobratzen ditugula. Soldata baxuagoak izateaz gain, anitzetan emakumeek*, eta batez ere migratutako emakumeek*, lanak debalde egin behar izaten dituzte, adibidez, zaintza lanak. Gai honi buruzko bertze datu erranguratsu batzuk erakutsi nahiko genituzke: Etxeko langileen %87 atzerri-tarra da, %46 etxe barneko langilea da, eta herenak baino gehiagok ez du lan kontraturik. Hauek datu batzuk bertzerik ez dira, baina adibide garbiak emakumeok* indarkeria ekonomiko jasaten dugula adierazteko.

Gainera, egiturazko desberdintasun sistema-

tiko honek, lanean eragiteaz gain, bertze arloetan ere badu eragina. Hainbat indarkeria molde garatzen dira (sexista, arrazista eta klasista) eta behin eta berriz errepikatzen diren erasoak ematen dira, ez dago hilketa, sexu eraso edo jazarpenik gabeko egunik. Bitartean, hedabideek gure arreta desbideratzen dute, "ahaztu eta dirua gastatu" leloa erabiliz eta kontsumo eredu sexista bultzatuz, emakumezkoen* irudiak baliatzen baitituzte sexu objektu gisara eta estereotipo sexistak sistematikoki zabaltzen baitituzte. Ikastetxeetan ere hezkuntza sistema patriarkala eta androgen-trikoa nagusitzen da, emakumeen* ekarpen historikoak alboratuz, merkatuko premietara zuzendutako gaiak hobetsiz, eta genero rolak errotuz.

Horregatik, muga guztiak gaindiko dituen greba feministara deialdia zabaltzen dugu BAZTAN, MALERREKA ETA BORTZIRIETAKO EMAKUMEOK*, GUK ERE PLANTO EGINEN BAITUGU! Gure aldarrikapenak lan munduaz haragokoak dira, eta horregatik greba lau il-dotan proposatzen dugu: lan greba, zaintza

greba, ikasle greba eta kontsumo greba.

Hortaz martxoaren 8an, emakumeek* dei egingen diegu ikastetxeetan eta lantokietan lanuzteak egitera eta zaintzak eta ugalketa lanak ez egitera, eta, grebaren seinale gisa, beso soko morea janztera, eta balkoi nahiz leihoetan amantalak eskegitzera. Era berean, ez kontsumitzeko deia ere egingen dugu: agindu kontsumisten kontra altxa gaitzen, bereziki enpresa eta merkataritza gune handiak saihestuz, azkeneko horiek baitira lan esplotazioaren eta baliabideen ustiaketa basatiaren ikur esanguratsuenetakoak. Gainera, gonbidapena luzatzen diegu eskualde mailan izanen diren ekitaldietan parte hartzera:

- 13:00etan LILAKATEA Berako Mukixu zubian.
- 12:00etan EMAKATEA Elizondon barna, musikakin alaitua.
- 13:00etan ELKARRERATZEA Elizondoko Plazan. Ondotik, bazkari autogestionatua Gaztetxean.
- 18:30ean Emakumeen KAFE TERTULIA Lesakako Plazan.
- 20:00etan MANIFAZARATZUA, Lesakan.

Kafe tertuliara etorri zuen termo, merendu edo nahi duzuen guzietan! Elkarrekin goxatuko dugu giroa!

Eta gero manifara mozorrotuak hobet!

M8an kaleak betetzera goaz! Eredu gutzia aldatuko duten proposamen politikoekin aterako gara kalera!

Arantzako herritarrei esker onez

Aitor ELEXPURU (Arantzako Guraso Elkarte eta Eskolako Irakasleriaren izenean)

Inauteriak pasa diren honetan, Arantzako baserri auzotako eta herriko biztanle eskuzabalak eskertu nahi ditugu. Eskolako haurrak puskek biltzen ibili dira etxez etxe umore eta alaitasuna banatzen, eta ordainez diru kopuru polita jaso dute herritarrengatik. Diru hori gure hezkuntza proiektura bideratzen da, hainbat jarduera osagarri bestuz (kanpaldi, txango, antzerki tailerra, ikas bidaia...). Mila eskerzuek ere gure hezkuntza komunitatearen parte izateagatik.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:


info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Bi interes gune ditut, gizarte ikerketa eta euskararen normalizazioarekin eta biziberritzearekin lotutako gaiak. Euskara teknikari gisa gure lana horretan eragitea da, eta horretarako egoe-za ezagutu behar duzu, diagnostikatu eta ikertu. Jakin nahi nuen zergatik Lapurdi kostaldeko guraso erdaldun batzuek haien haurrak ikastolara eramaten dituzten».

Urko IKARDO
Bortzirietako mank.
GAUR8 2018.02.17



«Lehen ez zen Alzheimerrik aipatzen. Xaharrak arrunt galduak dira, beti ezker eta eskuin abian dira eta guk besteak utzi behar ditugu horien xerka joateko. Jende xaharrentzat ontsa da elkarrekin egotea, baina gure lan baldintzendako zailago da. Bestalde, gero eta zaharragoak dira, gehienek 90 urte dute (...) Batzuentzat horien familia gara».

Maite BARBERARENA
Erizaina Uztaritzen
LABORARI 2018.02.19

11 galdera labur

Nor dugu Amaia Iriondo?

Gauzak ilusioarekin egitea gus-
tutzen zaion pertsona.

Zein zaletasun dituzu?

Lagunen artean egotea, antzer-
kia...

Zugarramurdin bizi den eibartarra ala Eibarren sortutako zugarramurdiarra?

Euskal Herrikoa sentitzen naiz,
eta Euskal Herriaren bihotzean
bizi naizenez, oso gustura na-
go.

Zer ekarriko zenuke Eibartik Zugarramurdi- ra?

Sarritan joaten nai-
zenez, ez nuek ezer
ere ekarriko.

Zer eramanen zenu- ke Zugarramurditik Eibarrera?

Hemengo paisaia
eramanen nuke.

Zer ikasi duzu jubi-

latu eta pentsionistekin lanean?

Gauzak mantso eta denborare-
kin egiten direla.

Nola tratatzen ditugu gizartean adinekoak?

Badirudi erakundeak orain hasi
direla arreta eta baliabideak es-
kaintzen.

Astebururako planik ederrena?

Lekuak ezagutuz, lagunekin ego-
tea gustatzen zait.

Zugarramurdiko txo- korik gustukoena?

Nire etxe ondoko
borda.

Zerk egiten zai- tu zoriontsu?

Konpainia one-
an, sutondoan
gaztain erreak
jatea.

Amets bat?

Jendea zoriontsu
ikustea.



Amaia IRIONDO → Zugarramurdin bizi eibartarra

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Goieko DESIN BERA
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK
Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu deituz Termita eta Pipien tratamenduak
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

Manterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

KATEA BIKE
BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA.
Eta orain,
GIMNASTIKA
ETA FITNESS
MAKINAK,
bizikleta estatikoak
lasterketako zintak
2. eskuko bizikletak
Kanttonberri 1, BERA 948 631 218
kateabera@telefonica.net
ORBEA CONDA SCOTT BH TREK

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak
Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa
LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

BERA

GIZARTEA → MARTXOAREN 10EAN

Altsasuko gazteen alde kalejira prest larunbaterako

Apirilaren 14an egingen den manifestaziora joateko deia egin du Udalak

TTIPI-TTAPA

Altsasuko gazte pre-soei elkartasuna adierazi nahian Nafarroa osoan gauzazen ari den *Altsasumartxan* ekimenaren baitan, martxoaren 10erako 3. etapa antolatu dute. Altsasutik abiatuko dira, 10:15ean. Lekunberri (11:00etan), Leitza (12:00etan), Mugairi (14:30etan) eta Elizondon (12:30etan) barna, batzuk Baigorri (19:00) eta bertzeek Beran (19:30) bukatuko dute ibilbidea.

Herrian, Toki Ona kiroldegi parean elkartuko dira. 19:30ean postalak idatziko dituzte eta 20:00etan kalejira-manifestazioan bilduko dira. Eguna bukatzeko, 22:00etan Andoaingo Inoren ero ni rock taldeak eta DJ Tororok, hurrenez hurren, Kataku ostatua musikaz giro tuko dute. Apirilaren 16an Audien-

tzia Nazionalean epaituko dituzten Altsasuko zortzi gazteei eskatzen zaien zigorraren neurrigabetasuna salatu du udalbatzak, aldeko 7 boturekin (EH Bilduko 5 eta Herrirako 2), aurkarko bat (UPN) eta abstentzio batekin (Herrirako).

Apirilaren 14an Iruñean egingen den manifestazio deialdira atxikitu eta herritarrei parte hartzeko deia egin die Udalak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Zuhaitzaren Eguna euripean egin dute

Manttaiek eta Berako Ehiza eta Arrantza Elkarteak, Udalaren laguntzaz antolatutako Zuhaitzaren Eguna otsailaren 17an ospatu zuten Landagaita inguruan. Hurbildu ziren 25 neska-mutikoeak, gainera, norbere izena jarri ahal izan zion landutako zuhaitzari. 30 gereziondo eta 10 urki landatu zituzten. Zuhaitzak landatu eta gero gosaria egin zuten Ehiza eta Arrantza Elkartean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ternuan ibilitako herriko arrantzaleen berri eman dute

Beratik itsasora lanera joan ziren gizonei aitortza egin die Udalak. Horietako batzuk izan ziren otsailaren 17an eta 18an Kultur Etxean eskainitako *Arte al agua* dokumentala ikusten eta Rosa Arburuak eskainitako solasaldia aditzen eta beraien testigantza eskaintzen. Argazkian, historialariarekin batera ageri dira Luis eta Marcelino Altzuguren Esteberena anaiak eta Felipe Matxikote. Horietaz gain, 1941 eta 1960 urteen artean bakailao arrantzan ibilitako herriko 70 arrantzaleen artetik, Bixente Fagoaga eta Pablo Ansalas ere bizi dira oraindik.

Ba al zenekien?

2017-19 Hirurteko Azpiegitura Planean sartutako dagoen argiteria publikoaren Urruñia eta Bidasoako koadroak zaharberritzeko proiektura 121.074,84 euro bideratuko dituela Udalak?

FLASH

Kike Amonarrizen eskutik, solasaldia

Bortziriak, euskaldunak nahi dituzu? Egingen dugu? solasaldia eskainiko du Kike Amonarrizek martxoaren 9an, ortziralean 19:00 -etan Beralandetan, Euskaldia kanpainaren harira.

Mugaldekoak kontzertuan

Mugaldekoak taldeak kontzertua eskainiko du martxoaren 17an, larunbatean, 20:00etan Kultur Etxean, *Galde-moduen trilogia* diska aurkeztuz. Sarrera 6 euro kostako da eta aitzinetik salgai daude Agara prentsan.

Itzel taldearen 'Bizimiñak'

Itzel antzerki taldeak *Bizimiñak* antzezlanaren aurkeztutako martxoaren 18an, igandean 18:00etan Kultur Etxean. Sarrera 5 euro kostako da eta aitzinetik salgai daude Agara prentsan.

MARITX

- Ingeniaritza elektrikoa
- Boletín industria
- Proiektu elektrikokoak
- Instalazio elektrikokoak

Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

sarobe
gozotegia okindegia

pº de eztegarra 25 bajo 31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net



BIDASOA OSASUN ZENTROA

Lezo, 4 - 20301, IRUN

Tel. : 943 63 39 74

943 63 40 38

cmbidasoa@centromedicobidasoa.com

www.centromedicobidasoa.com

Zure osasun zentroa Irun erdi-erdian

Gure **pazienteei erantzun azkarra eta eraginkorra ematen diegu**, osasun arloko **gure profesional bikainei eta eskaintzen ditugun gama altuko osasun-zerbitzuei** esker. Ginekologiatik hasi eta traumatologia bitarteko zerbitzuak ematen ditugu, eta bertzeak bertze, errehabilitazio edota oftalmologia bezalako zerbitzuak ere bai.



ESPEZIALITATEAK

Bidasoa Osasun Zentroan hainbat espezialitate eskaintzen ditugu, gure pazienteei ahalik eta zerbitzurik osatuena eman ahal izateko.



OSASUN-ZERBITZUAK

- Kardiologia
- Familia eta Komunitateko Medikuntza
- Nutrizioa eta Dietetika
- Psikologia

ZERBITZU KIRURGIKOAK

- Kirurgia baskularra
- Kirurgia Orokorra eta Digestio-Kirurgia
- Obstetrizia-Ginekologia
- Otorrinolaringologia
- Traumatologia
- Urologia

BESTE ZERBITZUAK

- Podologia
- Erizaintza

ZERBITZU NAGUSI, DIAGNOSTIKO ETA TERAPEUTIKOAK

- Analisi klinikoak
- Anatomia Patologikoa
- Farmazia Ospitalarioa
- Panoramika konbentzionalak eta CDan
- Radiodiagnostikoa
- Mediku- eta kirol-azterketak
- Errehabilitazioa
- Test psikoteknikoak
- Larrialdiak
- Gorputzeko minaren balorazioa

BERRIKUNTZA

Ginekologia, obstetrizia eta lagunduriko ugalketaren unitate berria Irunen.



Zergatik aukeratu gu?

1. **Hamar urte baino gehiago** daramatzagu bidasotarren osasuna zaintzeko lanetan.
2. **Irun erdi-erdian** kokatuak gaude.
3. **Lan arloko mutuen eta aseguru pribatuen sare zabalarekin** lan egiten dugu, eta gainera, **Unespa sarearen barne gaude** eta trafikoko lesioen arretaz arduratzen gara.
4. **Instalazio modernoak** ditugu eta **azken teknologiak** erabiltzen ditugu **zerbitzurik onena** bermatu ahal izateko
5. **Hurbileko tratua** eta **humanoaren** aldeko apustua egiten dugu.

LESAKA

GIZARTEA → OTSAILAREN 23KO BATZARREAN

Torturaren kontrako mozioa aho batez onartu du Udalak

Igor Portu eta Mattin Sarasolaren kasua dela eta, Estrasburgoko epaiaren inguruan

Aitor AROTZENA

Tortura kasuak ikeritzeko eta azaleratzeko beharra agertzeko eta tortura pairatu duten herritarrei elkartasuna eta babesa azaltzeko mozioa aurkeztu zuen EH Bilduko Udaltaldeak otsailaren 23ko Udaltzarrerara eta aho batez onartu zen, Geroa Bai eta EH Bilduko zinegotzien botoekin.

Otsailaren 13an, Torturaren aurkako egunean, Estrasburgoko Auzitegiak, historian lehen aldiz Espainiar Estatu zigortu zuen Igor Portu eta Mattin Sarasola le sakarrekin tratatu eta ankerra erabiltzeagatik.

EH Bilduk gogor salatu zuen «bai Portuk eta Sarasolak, baita bertze hainbete pertsonak ere jasandako tratua Espainiar Estatuaren partetik. Epai honek argi uzten du Espainiar Estatuaren jarduna eta giza eskubideen urraketa». Beraz, EH Bilduk uste du badela garaia egindakoa onartzeko eta aurretik gertatutako tortura salaketa kasu guztiak argitzeko. «Ez

hori bakarrik, behingogatik horrelakorik berriz ez gertatzeko beharrezko mekanismo eta neurriak martxan jartzeko garaia dela uste dugu», zioen oharrean.

Udalak tortura kasuak ikertzeko eta azaleratzeko beharra agertu zuen eta tortura pairatu duten herritarrei elkartasuna eta babesa azaldu zien. Era berean, egia, aitortza eta erreparaziorako daukaten eskubidean laguntzeko bere prestutasuna agertu du Udalak.

Udalak Nafarroako Gobernuari eskatu dio torturaren gaia azalertzeko eta biktimak erreparatzeko laguntzeko bere esku dagoen guztia egin dezan, eta bide horretan egiten ari den eta egingen dituen urratsei babesa eman die.

Espainiar Estatuari, behingogatik tortura eta tratatu txarren kasuetan, eta bereziki Igor Portu eta Mattin Sarasolaren kasuan izandako ardura onartzea eskatu dio Udalak, eta aldi berean, gaia azalertzeko eta biktimak erreparatzeko laguntzeko bere esku dagoen guztia egin dezala. Era berean mekanismoak martxan jarri ditzala holarik berriz ere gerta ez dadin. Hartara, torturak dokumentatzeko egitasmoaren garrantzia eta beharra azpimarratu du Udalak.



ARGAZKIA: NAFARROA OINEZ 2017

Oinez Basoa landatzen hasiak dira Frainen

Joan den urteko Nafarroa Oinezean baita, 11.000 zuhaitz izanen dituen Oinez Basoa landatzen hasiak dira Frainen. Lehenbiziko landaketak egiteko ekitaldia otsailaren 18an egin zuten. Isabel Elizalde, Nafarroako Gobernu Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Kontseilariak, Jose Luis Etxegarai alkateak, Nafarroako Ikastolen Elkarteko Mikel Asiain presidenteak eta Amaia Lasheras Tantarumairu Ikastolako presidenteak parte hartu zuten. Aipatzekoa da Fundación Caja Navarra erakundeak diru-laguntza emanen diola Lesakako Oinez Basoari eta horretaz gain, aurten ingurumenarekin lotutako ekimen berritzaileena izendatu dute Oinez Basoa.

FLASH

'Koadernoia Zuri' antzerzlana

Hika Teatroa taldearen *Koadernoia Zuri* antzerzlana ikusgai izanen da martxoaren 10ean, larunbatean 19:30ean, Hiriardean. Sarrerak 8 eurotan salgai daude (aitzinetik Turismo bulegoan, Xagu eta Telletxea liburutendetan eta egunean bertan).

Emakumearen Eguna

Martxoaren 8an, Emakumeen Kafe Tertulia egingen dute plazan (18:30) eta manifa zaratatsua (20:00).

Zinegotzi aldaketa

Jose Esteban Etxebestek hartu du Geroa Bai-ko zinegotzi kargua, uko egin duen Pedro Apeztegiaren ordean. Hezkuntza, Kultura eta Kirol batzordeko buru da Etxebeste orain.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joseba Iturbide aske epaiketaren zain

Otsailaren 23an, Auzitegi Nazionalen deklaratu ondotik, aske utzi zuten Joseba Iturbide herritarra. Espetxe atarian zain zituen familiakoek eta lagunek harrera goxoa egin zioten.



Bittiria plaza 8
LESAKA
T. 677 606 292

Gure Hularka

EKIALDEKO MASAJEAK

ESPRES MASAJEA
15 minutuz kendu lepo,
sorbalda, bizkar eta gerrialdeko minak
10 euroren truke.

MINDFULNEESS jarduerak.
Luzaketak, erlaxazio...



GIZARTEA → MARTXOAREN 11N

Bortzirietako emakumeen IX. mendi itzulia egingen dute

Bazkarira joan nahi dutenek martxoaren 8a bitarte deitu beharko dute

Iruñe ELIZAGOIEN

Martxoaren 11n, igandean, herriko mendietan barna egingen da Bortzirietako emakumeen IX. mendi itzulia. 09:00etan dute hitzordua, herri sarrerako aparkalekuan. Hortik abiatuta mendi itzulia egingen dute. Ondotik, 13:00etan Etxalarko plazan elkarretaratzea izan da.

Nahi duenak dutxatzeko aukera ere izanendu eta parte-hartzaile guztiei salda eskainiko zaie. 14:00etan bazkaria izanen da Herriko



ARGAZKIA: IGBON ERRAZU

Trikiti doinuak bertze urte batez herrian

Otsailaren 24an urteroko hitzordua izan zuten hainbat trikitilari eta panderojolek Etxalarren. Aurten ere trikitilari eta panderojole ezagunak etorri dira herrira eta herriko ostatueta poteoa egin ondotik, Larraburuan afaldu zuten.

Ostatuan. Bazkarira joan nahi dutenek martxoaren 8a bitarte 948 635036 telefonora deituz eman beharko dute izena (20€).



ARGAZKIA: XURXO NUNEZ

Itsaso Elizagoien Sharon Shanonekin

Otsailaren 12tik 19ra bitarte Irlandan klase bereziak hartzeko aukera izan du Itsaso Elizagoienek. Carlos Nuñez eta bere taldearekin joan zen omenaldi kontzertu bat eskaintzera eta bidaiari aprobetxatuz, Irlandako hainbat akordeoi diatoniko jole ezagun eta ospetsurekin egoteko aukera izan du. Tartean argazkian ageri den Sharon Shanonekin ezaguna.

ALTXATA KULTUR ELKARTEAN

Urteko batzar orokorra egingen dute martxoaren 18an

Martxoaren 18an, 12:30ean, urteko batzar orokorra egingen du Altxata elkarteak. Hauek izanen dira bilkura horretan landuko diren gaiak: Azken Batzar Nagusiko akta onartzea, 2017ko kontuen nondik norakoak eta 2018ko aurrekontua, Gasna Feriari buruzko kontuak, San Juan suaren antolatetari dagozkionak, Usategietako igandea, dantzak, pilota, mugikorra, Laboral Kutxako dirua, junta aldatzea eta bestelako galderak eta erantzunak. Bazkideei bilerara joateko deia egin diete, denen ideiak eta iritzia kontutan hartzeko denen parte-hartzea behar-beharrezkoa delako.

APIRILAK 14 ETA 21

Altzarien zaharberritze ikastaroa bukatu orduko bideogintza ikastaroari begira

Iruñe ELIZAGOIEN

Larraburua elkarteak antolatutako altzarien zaharberritze ikastaroa bukatutzat eman dute. Jendea hagitik kontent gelditu da bertan egin eta ikasitako gauzeekin eta animoarekin daude bertze ikastaro bat antolatzeko. Areago, ikastaro bat akitu orduko, bertzeari begira hasiak dira herrian.

Kasu honetan Kultur Etxeak antolatutako ikastaroa izanen da, apirilaren 14 eta 21ean. Norbere bideoak egiten ikasiko dute Katubiren eskutik, Etxalarko Kultur Etxean. Ikastaroa 60€ ordainduko da eta bi egunetan, goizetan, 10:30etik 13:00etara eta, arratsaldetan, 16:00etatik 18:00etara eskainiko dute. Izena emateko martxoaren 28a bitarteko epea izanen da, 948 635386 telefonora deituz edo kulturetxea@etxalar.eushelbidea idatziz.



Ba al zenekien

Martxoaren 9an, ortziraletan, Loreak filma ikusteko aukera izanen dela Etxalarko Kultur Etxean? 19:00etan izanen dute hitzordua eta sarrera dohainik izanen da. Anima zaitetzeta eta gozatu!

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattagorria
lentzeria mertzzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

USOA
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214
ETXALAR

- Pentsu ekologikoak
- Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa

FORZECAN ZAKUR ETA KATUENDAKO PENTSUA

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Biurraña, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

ARANTZA

GIZARTEA → UDAL PLAN OROKORRA

Plan Orokorra egiteko parte-hartze prozesua hasi dute

Herritarrekin hurrengo bilera martxoaren 22an egingen da

Nerea ALTZURI

Urteak pasatu dira eta herriko arau subsidiarioak zaharkituta gelditu dira. Horiek berri eta heldu diren 20 urteetan nolako herria nahi den finkatzeko, Udal Plan Orokorra beharrezkoa dela ikusi du Udalak. Hori dela eta, iaz, ekainaren 17an, Udalak eta Nafarroako Gobernuak, Udaleko Plan Orokorra abiatzeko hitzarmena sinatu zuten. Horren arabera, aurrekontuaren %80 ordainduko du Nafarroako Gobernuak.

Udal Plan Orokorra egiteko lanak esleitu ditu Udalak eta aurkeztu direnen artean, Udalarentzat lan egiten duen arkitektoaren enpresa, Arrata taldea, hobetsi du. Prozesu honetan, lehenbiziko pausua herritarren nahi, behar eta kezka aditzea denez, herritarrekin partaide-tza prozesua hasi dute eta horretarako bileren egutegia zehaztu dute. Otsailaren 18an abiatu zituzten bilerak eta herritar aunitz hurbildu zen. Joan den martxoaren 1ean egitekoa zen bigarren bilkura. Hurrengo hitzorduak martxoaren 22an, apirilaren 12an eta maiatzaren 3an izanen dira.

Mendia eta herria zaindu

Mendia zaintzea denon ardura denez, auto, traktore, 4 x 4 ibilgailu edo bertze motordun ibilgailuekin ahalik eta guttien ibiltzeko eskatu dute Udaletik. Pistetan ibiltzen ahal dela oroitarazi dute, baina horietatik kanpo ez litzatekeela ibili behar adierazi dute: «mendia ahula denez, aunitz kostatzen zaio hondatu ondotik bere onera etortzea».

Bertzetik, zakur kaken arazoak bere horretan segitzen duela ohar-tarazi du Udalak. Herriko txokoak zaintzea ere denon lana denez, herri-ri libre dabilzan zakurrak jabeek kontrolatzeko eskatu dute.

MENDIKO LANAK

Hainbat lan egin ditu Udalak lau baserri-azuetan: Eguzkialdean, zerrakurak bildu eta lgan-tziko mugatik Astaloko pista zabaldu dute. Azkilarrean, Gaisenberroko bordatik Senberroko bordarako bidea moldatu dute, baita Artxamatik Meakarako bidea ere. Larrainenbordako kanadiar pasabidea ere konpondu dute. Bordalarrean, Garaikobordatik Bularxikirako bidean hormigoia bota dute eta Meakako bidean eta Sagardogoxon kanadiar pasabideak egin dituzte. Aien-tsan, Madalenbordatik Bordattikirako bidean hormigoia bota dute.



ARGAZKIA: ENEKO SARRIAS

Herriko pilotariak Bortzirietako txapelketan

Argazkiko zazpi pilotari gaztetxoak Bortzirietako eskuz banakako pilota txapelketan ari dira. Ezkerretik eskuinera, Oier Sarrias Telletxea, Beñat Azpiroz Errandonea, Suharri Madariaga Otegi, Ekai Madariaga Apaolaza, Oskitz Madariaga Otegi, Egoitz Goñi Oskoz eta Beñat Andueza Gorostiza ageri dira. Zorte on eta gozatu!



ARGAZKIA: BELEN MUTUBERRIA

Tailerra Miren Camisonekin

Guraso Elkarteak antolatuta, gaian aditua den Miren Camisonekin hazieraren inguruko tailer filosofikoa egin zuen argazkiko kuadrillak otsailaren 22an. Bil-dutakoak hagitz gustura gelditu ziren.

Trikitixa Jaialdia

Larunbatean, martxoak 10, Trikitixa Jaialdia izanen da Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta. Ehundik goiti trikitilari eta panderojolek parte hartuko dute eta Azpeitiko Sahatsa dantza taldearen saioak ere izanen dira. Hitzordua 16:30ean da frontoian.

Sagardotegia

Sagardotegira joateko autobusa antolatu dute gazteek martxoaren 24rako. Txartelak hamar eurotan erosten ahal izanen dira martxoaren 11 bitarte.

ARANTZAKO DANTZA LUZEA

Herriko dantzak ikasten

Bertze urteetan udan egiten baziren ere, aurtentzen, herriko dantzak ikasteko saioak martxo eta apirilko larunbatetan egingen dituzte.

Besten aitzinean, halere, bertze bi entsegu izanen dira. Herritar talde bat bildu da auzolanean dantzak erakusteko eta saioak larunbat honetan abiatuko dituzte. Dantzak ikasteko saioen egunak hauek dira: martxoan, 10, 17 eta 24an; eta apirilean, 7, 14, 21 eta 28an. 11:00etatik 12:30era izanen dira. Larunbat honetan eskolako patioan egingen dute, baina hurrengoak frontoian izanen dira.

Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 4. mailara bitartekoek neska dantza eta zortzikoa ikasteko aukera izanen dute; 4. mailatik goitiko neska-mutikoei soka dantza erakutsiko zaie; eta 6. mailatik goitiko hiru bueltakoa.

GIZARTEA → OTSAILAREN 17AN ETA 18AN

Zuhaitz landaketak egin dituzte auzolanean

1.100 landare sartu zituzten eta bertze 100 Zuhaitzaren Egunerako utzi

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 17 eta 18ko aste hondarreen zenbait landaketa egin ziren herriko mendietan Udalak auzolanera deituta. Alde batetik, Fraingo ekialdean, Ziobitik kasko aldera, 675 zuhaitz landatu zituzten: 325 bertako haritz, 300 haritz amerikar eta 50 pago. Iaz, ETB grabatza etorri zenean egingdako landaketaren ondotik, hagitz idor joan zen eguraldia eta landare bizkorki ondatu egin ziren. Hutsune horiek betetzen aritu ziren, bertzeak bertze. 100 haritz landare eskolako Zu-

haitzaren Egunerako utzi zituzten landatu gabe.

Pagola aldean, berriz, Eskuiturrieta deitutako parajearen inguruan, 250 pago, 100 japoniar gaztainondo eta 75 bertako haritz paratu zituzten, 425 zuhaitz denera. Hortik hurbil, bide azpian, garai batean Bekobordako iratzelaia zegoen lekuan, suebaki bat egiteko asmoa dute hurrengo asteetan, suteen kalteak ahalik eta gehien saihesteko zikin samarra dagoen inguru horretan.

Hain eguraldi txarra egin zuenez, hagitz eskertua dago Udala auzolanera joan ziren herritar guzietan. Urtero horrelako ekintzekin segitzeko asmoa daukate.

Bide moldaketak

Udalak 2018an zen-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Karrika Nagusian dagoen bide zati hau hagitz ondatua dago hasieran.

bait bide moldatzeko eskaria egin zion Nafarroako Gobernuari. Eskatutakoetatik diruz bi bakarrik lagunduko dituzte azkenean. Alde batetik, Sarrolako fabrika zaharraren ondotik Ze-laigaraieta aldera doan bidearen zola moldatuko da, errepidetik sartu eta segidan dagoen zatia. Bestalde, Lesakako errepidetik Irigoiena aldera doana ere egokituko da. Zati batean, Goikoetxeberriko parean, oraingo zola apalduko dute, etxeko sarre-raren mailatik goitiago baitago. Elutsetarako bidea, Itsesartik Talaira doana, berriz, bertze lanaldi baterako utzi behar izan dute, oraingoz erreserban utziko dutelarik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako Herri Kirol Jokoetan

Azken urteetako ohiturari eutsiz, kimu edo alebin mailako taldea atera dute aurten ere Nafarroako Herri Kirol Jokoetako proba konbinatuan parte hartzeko. Lehen saioa Etxarri Aranatzan izan zuten otsailaren 25ean (argazkian); martxoaren 11n Antsoainen jokatu den saioaren ondotik, martxoaren 18ko jardunaldia Igantzian egingen dute (11:00).

SUNBILLA

KULTURA → MARTXOAREN 17AN

VI. Kantu Zaharren Eguna ospatuko dute Ariztigain Kanpinean

Martxoaren 14a bitarte izena eman daiteke bazkarian

Maider PETRIRENA

Martxoaren 17an, larunbatean, VI. Kantu Zaharren Eguna ospatuko dute Ariztigain Kanpinean. Bazkariarekin hasiko dute besta 14:00etan eta bazkaldu bitartean eta ondotik kantuan arituko dira, Joxe Angel akordeoilariaren laguntzaz abesteko aukera eskainiko zaielarik.

Honakoa izanen da bazkarian eskainiko den menua: urdaiazpikoa, ahate mousa mahats zi-

mur ogiekin, krocketak, otarraixka entsalada, perretxiko eta urdaiazpiko nahastura eta arrainzopa, hasteko; legatza plantxan patatekin, ondotik; eta gazta tarta esnegain izozkiarekin postreterako (ardoa, sagardoa, kafea eta kopa barne).

Bazkaria ilunabarre bitarte luzatuko da. Izan ere, ilunabarrean pintxo-afaria izanen dute. Bazkaria, afaria eta kantu zaharrak biltzen dituen liburua 48€ ordaindu beharko dira. Izena emateko martxoaren 14ra bitarteko epea izanen dute, bertara deituz edo web orrialdera idatziz egin daiteke.



Ba al zenekien

Pattere Galtzagorri eta Ines Orbegozo Oteiza Iruñeko Arrano Elkarteko mus txapelketan ibili zirela? Guttigatik ez ziren hurrengo fasera pasa.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA, MAITANE IBARRA ETA ANITA ETXEBERRI

Malerrekako pilota txapelketan ibili dira herritarrak

Otsailaren 24an, Malerrekako pilota txapelketan ibili ziren herriko gaztetxoak. Tartean, Santi Jimenezek txapela irabazi zuen, 18-17ko emaitzarekin. Ibai Maritxalar eta Aimar Agestak, berriz, aurrez aurre jokatu zuten eta Maritxalarrek lortu zuen garaipena. Beñat Iriarte ere gogor lehiatu zen. Haatik, txapela irabazterik ez zuen izan. Azkenik, Nano Jimenezek finalean jokatzeko aukerarik ez izanagatik, Santi Utergaren eskutik oroigarria jaso zuen. Zorionak denei!



ARGAZKIA: JOSETXO APEZTEGIA

Musa eta bazkaria gozamenerako aitzakia

Otsailaren 25ean jokatu zuten Arkupeak elkartekoen besta herrian. 10:00etan meza izan zuten hildako jubilatuen omenez. Ondotik, mus txapelketa izan jokatu zuten 8 bikotek. Luixito Manterola eta Pako Errandoneak irabazi zuten eta Patxiku Apeztegia eta Santiago Arozamena izan ziren bigarren. Txapelketa akituta, bazkariak gozatu zuten 46 lagunek.

FLASH

'Txotx' egitera!

Martxoaren 10ean Urrietako Oianumeko sagardotegira joanen dira herritarrak.

Koldo Herrera herritarra kategoriaz goititu da

Otsailaren 25ean hasi zuten BTT karreraren aurtengo denboraldia. Koldo Herrera Urrozek, orain artean infantiletan jokatu duenak, katedetan jokatu zuen, 10. postua lortu zuelarik. Aitzitik, ez da herriko parte-hartzaile bakarra izan: Unax eta Ander Larraburu, Markel Agesta, Oihan Apeztegia eta Gari Larraburu ere bikain moldatu ziren. Zorionak denei eta animo gutziet!

Eskolatik zinemara

Otsailaren 28an Doneztebeko zinemara joatekoak ziren ikasleak, baina elurrarengatik bertan behera utzi zuten. Bertze egunen batean eginen dute.

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 623 130

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegiko menua
TXOTX GARAIA IREKIA

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA • T. 609 446 693

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiaik
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

GIZARTEA → MARTXOAREN 8AN HASI ETA 11 BITARTE

Emakumeen Eguneko ospakizun eta aldarrikapen zabala prest

‘Bakean dagoenari bakean utzi’ saioa igandean

Marga ERDOZAIN

Martxoak 8, auzolanez prestatutako egunak, aurten ere, egitarau zabala du.

Nazioarteko Emakumearen eguneko besta, aldarrikapena, greba... uztartuta aurre-ikusten da. Egitarauari dagokionez martxoaren 8rako (ortzegunerako) honako hau prestatu da: DBHe-ko ikasleek goizeko 10etan Lilatoia korrituko dute Doneztebeko karriken zehar, ondoren, “falsmob” polit bat Santa Luzia plazan burutuko dute. Akitzeko, Prebentzio Batzordeko kideek komunikatua irakurriko dute. San Miguel ikastetxeko lehen-dabiziko zikloko ikasle eta irakasleek goizeko ekimen honekin bat egiten dute eta karriketara aterako dira. Honetaz gainera, bi ikastetxetan lanketa ezberdinak burutuko di-



ARGAZKIA: LANKU

Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena emanaldia eskainiko dute igandean.

ra: antzerki tailerra, pelikula proiektzioa... 11:00etatik 15:00etara bertako irakasle batzuk lanuztea burutuko dute (Mugimendu Feministek antolatutako grebarekin bat eginda).

Arratsaldeko 6:30ean, zinema aretoan, Firin Farandula bertako antzerki taldeak Emakumearen Egunerako emanaldi berezia eskainiko du.

Ba al zenekien

Baztan-Bidasoko III. Stock Feria kiroldedean antolatu duela Denok Bat Federazioak martxoaren 10ean (10:00-20:00) eta 11n (11:00-19:00)

Martxoaren 10ean (larunbatean), arratsaldeko 6:30ean eta Eliza Atarian Mendi abesbatzako kideak (helduak eta txikiak) emanaldi xaloe eskainiko dute. Ondoren, kalejira burutuko dute.

Martxoaren 11n

(igandean), arratsaldeko 19:00etan eta zinema aretoan, *Bakean dagoena bakean utzi* emanaldia izanen da. Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai zilarrezko bukara emanen diote aurten-go ospakizunari.



FLASH

Xabierrera joateko autobusa

Aurten ere, Errekak honen ardura hartu du. Hitzordua martxoaren 10ean goizeko 4:45ean. Iruñetik Xabierrera 42 kilometro egin ondoren, etxera itzultzeko bertatik autobusa abiatuko da. Apuntatzeko Titi ostatuan edo 948 450271 telefonora deituz (15 euro bazkideek eta ez direnek 20 euro).

laz jaiotako umeei ongietorria

2017. urtean jaiotako umeei herriak ongi etorria emanen die martxoaren 18an. Tradizioa jarraituz, aurreko urtean jaiotako txikiak Bordablankan zuhaitz bana landatuko dute (guraso, anai-arrebek eta atautxi eta amatxik lagunduta). Aurten 18 haritz landatuko dituzte, Donezteben ume kopuru hori jaiotzen baita.

Askin haur eskolan aurre-matrikula

Askin haur eskolako aurre-matrikula zabala martxoaren 15era arte. Informazioa web orrian edo/eta 683 158 606 eta 948 451 868 telefonoetan.

Aizkora apustua igandean

Mieltxo Mindegia eta Luis Txapategiren nor baino nor gehiago ariko dira martxoaren 11n, honako lanari aurre eginez: zortzi kanardiko, lau 60 ontzako eta bi onbiko. Hitzordua igande eguerdiko 12etan Ezkurra pilotalekuan izanen da. Aizkolarik bakoitzak 4.000 euro jarriko ditu jokotan.

MARTXOAREN 29TIK APIRILAREN 1ERA

‘Ritme Alaia’ Hiri-Dantza kongresua herrian egingen da

Nafarroako eta Bartzelonako eskolek antolatutako *Ritme Alaia* Hiri-Dantza kongresua Donezteben egingen dute martxoaren 29tik apirilaren 1era. Bartzelona, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoatik datozen irakasleek emandako hamar orduko masterclass ikastaroak eta Batles 2vs2 All Styles lehiaketa izanen dituzte.

Izen ematea martxoaren 17a bitarte egin daiteke enekao@hotmail.com edo academiadedanzarebeca@gmail.com helbidetara idatziz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sariak ere banatuko dituzte 2vs2 All Styles lehiaketako onenen artean.

ITUREN

KULTURA → BERTSOLARITZA

'Addams familia' Bardoak ekimeneko finalaurrekoetan

Martxoaren 9an Erratzuko Zubi Puntan izanen dute saioa

Arkaitz MINDEGIA

Bardoak bertso ekimeneko finalaurrekoak jokatzeko hasi da *Addams familia*. Taldea Baztan eta Malerrekako gazteek osatzen dute eta tartean, herriko hiru bertsolariak ditugu.

Finalaurrekoetako lehenbiziko saioa Iruñeko Arrano Elkartean izan zuten, martxoaren 2an. Hurrengo, berriz, etxean izanen dute, martxoaren 9an, ortziralean. Erratzuko Zubi Puntan izanen dute hitzordua *Topa Bardo Kopa!* taldearekin. Bi saioak akitzean, bi taldeetako bat pasako da finalera.



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Otsaila elurraren bisitarekin akitu dute herritarrek

Otsailaren hondar egunean leihoak ireki eta herria zuri-zuri ikusteko aukera izan zuten herritarrek. Ikastetxeetara joateko zailtasunak tarteko, elur-tiraka aritzea aprobeztatu zuten batzuek.

Trikitixa jaialdira herritarrek

Martxoaren 10ean, larunbatean, Arantzako III. Trikitixa jaialdia ospatuko dute eta Mendaur trikitixa eta pandereta eskolako ikasleek bertan parte hartuko dute.

Herritarrekin batera, Arizkun eta Sunbillako ikasleak ere han izanen dira.

Mendaur eskolatik bi talde izanen dira taula gainera igoko direnak, eta bina abesti jo eta kantatuko dituzte.

Errigora

Abian da berriz ere Errigora kanpaina. Nafar olio eta kontserbak erosiz hegoaldeko euskalgintza lagundu nahi dutenek martxoaren 6tik 20ra bitarte egin beharko dituzte eskaerak.

PULUNPA ESKOLA

Sei ikaslek eman dute izena

2018/2019 ikasturterako aurrematrikuletan, sei neska-mutikok Pulunpa eskolan eman dute izena.

IRTEERA ETA BISITA

Eskolako haurrek irteera egin zuten otsailaren 28an. Tinko zine enpresaren eskutik, Doneztebeko zinemara joan ziren Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak, Malerrekako eskola-ttikietako gainerako ikasleekin batera.

Haur Hezkuntza-koek, halaber, zinea langai izaki, Ane Miren bihurrikariaren bisita izan zuten eskolan. Gonbidatuak bere gaitasuna ikusaraztearekin batera, haur batzuei bihurtzeak egiteko aukera eskaini zien, gozatzeko bide emanaz.

DENOK BAT FEDERAZIOAK

Baztan-Bidasoko III. Stock Feria antolatu du martxoaren 10 eta 11rako, Donezteben

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoko hainbat merkataria zerbitzuz osaturiko Denok bat federazioak, Nafarroako Gobernuaren eta Doneztebeko Udalen laguntzaz, eskualdeko III. Stock Feria antolatu du martxoaren 10 eta 11rako. Aurtengoa, Doneztebeko kirol-

degian izanen dute hitzordua, eta larunbatean 10:00etatik 20:00 etara; eta igandean 11:00etatik 19:00etara bitarte bilduko dira.

Honako komertzioek kaleratuko dituzte salgaiak: Argibel optikak, Artlepok, Onddo taputok, Arturo moda-etxeak, Amaya estetika zen-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean Elizondoko frontoian bildu ziren.

troak, Virgilio zapata-dendak, Fantxike modak, Ipingi modak, Kimetz belar-dendak, Kukuka haur arropa-dendak, Maite modak, Mar-

tzutzak modak, Mertxe modak, Ortzadar modak, Alustiza lurrindegiak, Zangue oinetakoak eta Zelak kirolak-ek. Horrela bada, bertara-

tzen direnek, besteak beste, jantzi, oinetako edota osagarrietan merkealdi eta eskaintzak aprobeztatzeko aukera izanen dute.

GIZARTEA → AUNITZ ESKUETAN

Herri galdeketaren harira, herrian sinadurak biltzeko asmotan dabilta

12 zubietarrek sinatu zuten irekiera egunean

Fermintxo ETXEKOLONEA

Gure Esku Dago ekimenaren baitan sorturiko Aunitz Eskuetan taldea sinadurak biltzen hasia da dagoeneko. Otsailaren 24an izan zuten irekiera ekitaldia Donezteben eta herritik 12 sinadura bildu zituzten.

Maiatzaren 6rako aurreikusitako galdeketa egin ahal izateko, ordea, eroldaren %15ak sinatzea beharrezkoa da. Hori horrela, aipaturiko sinadura kopurua- ren ehunekora ailegatzeko, herriek bi hilabete- takerako epea izanen du- te. Herrian egitasmoa- rekiko atxikimendua is- latu nahian, Ines Gere-

kak, egun bat zehaztu eta sinadurak herrian bertan biltzeko ardura hartu du. Eguna oraindik zehazteke badute ere, laster emanen du- te horren berri.

FRONTENIS TXAPELKETA

Mikele Etxekolonea eta Naroa Elizalde Aunitz Eskuetan taldeak antolaturiko frontenis txapelketa jokatzeko ari dira. Dagoeneko bigarren faserako sailkapena lortu dute.

Aitzitik, Elizalderena ez da lortutako sailkapen bakarra. Emakume Master Cup txapelketa final-laurdenak jokatzeko baitzen martxoaren 4an. Lerro hauek idazterakoan jokatzeko zuzenez, hurrengo zentzuan eskainiko zaizue horri buruzko informazio gehiago.



ARGAZKIA: MALEN ETXEKOLONEA

Eskolak bertan behera, denak jolastera!

Otsaileko azken egunean, elurra tarteko, eskolak bertan behera utzi zituzten eskualdeko hainbat ikastetxetan; beste batzuetan, berriz, gutxi batzuk baino ez dira joan. Hori horrela, herriko haur eta gaztetxoek elurraz gozatzeko aprobetxatu dute.

Ba al zenekien

Martxo hasieran Maritxu Sanchez herritarra Bulgariara joan zela? Bertan egingen du ikasketa-bukaerako praktikaldia. Herriko gazteek ezusteko afari batean bilduz egin zioten agurra.

FLASH

Ehiza denboraldiaren bukaera

Basurde-ehizako denboraldiari bukaera ona emateko, otsailaren 25an herriko Errandonea ostatuan otordu ederra egin zuten.

Mus txapelketan herritarrek garaile

Otsailaren 16an Elgorriagako Herriko Ostatuan erretiratu arteko mus txapelketan Palazelaitako Jexux eta Josetxo Santesteban herritarrek irabazi zuten. Giro ederra izan zutela esan digute, bai musean, bai eta igandean Hilario- nen eginiko bazkarian ere. Azken hitzordu horretara, herritik 10 lagun joan ziren.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Merkealdia
Azken egunak

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak
edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

MALERREKA

GIZARTEA → MARTXOAREN 17AN DONEZTEBEN

Herri galdeketa bultzatzeko bertso-afaria egingen dute

Frontenis txapelketako finalak ere jokatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Malerreka eta Bertizaranako Gure Esku Dagoren baitan sortutako Aunitz Eskuetan taldeak, herri galdeketa egin

ahal izateko sinadura bilketari ekin dio. Lehen ekitaldia otsailaren 24an egin zuten Doneztebe-ko Herrigunean eta hainbat lagun hurbildu zen lehen sinadurak ematera.

Herri galdeketa gironen joateko frontenis txapelketa ere antolatuko du Aunitz Eskuetan taldeak. Denera 44 bikote ari dira, 31 mutilenak eta 13 neskenak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Galdeketaaren aldeko lehen sinadurak otsailaren 24an bildu zituzten Donezteben.

Martxoaren 10ean finalerdiak jokatuko dituzte eta martxoaren 17an, final nagusiak (17:00etan emakumeena eta 18:15ean gizonenak) eta hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko norgehiagokak (11:00etan

emakumeak eta 12:00etan gizonenak), Donezteben.

Finalen ondotik sari banaketa eta triki-potea egingen dute herrian zehar. 21:00etan Bertso-afari desafioa Arantzoko elkartearen, Malerreka (Alazne Un-

txalo, Iker Gorosterrazu eta Egoitz Gorosterrazu) eta Baztango (Amaia Elizagoien, Bitor Elizagoien eta Xabi Maia Donpi) bertsolarien artean. Afarirako apuntatzeko epea martxoaren 15ean akituko da Titi ostatuan.

URROZ

GIZARTEA → URTEKO BALANTZEA

8.000 auto etorri ziren iaz Leurtzako urtegietara

Ez zuen euri aunitzik egin eta horrek 24.000 bisitari inguru erakarri zituen

Gaione ARIZTEGI

Aurreko urteko udasasoia eguraldi onare-

kin joan zen, ez zuen euri aunitzik egin eta erran beharrik ez dago horrek Leurtzako urtegietara etortzen diren bisitarien kopurua handitu egiten duela. Horrela bada, iaz 8.000 koxe inguru igo zirela diote datuek. Horrek erran nahi du 24.000 bisitari izan genituela natur ingurune horretan.



ARGAZKIA: JAIONE ARIZTEGI

Leurtzako urtegia erakargarria da bertakoentzat nahiz bisitariarentzat.

Bisitari gehienak ez dira hain urrutikoak izaten, baina egia da oportetara datorren jendeak normalean ez diola hutsik egiten bertako bisitari, eta azkenean bazter guztietako jendea biltzen da bertan.

Sagardotegira irteera prest dute herriko gazteek

Bertze urte batez, sagardotegira joatekoak dira herriko gazteak. Irteera martxoaren 17an izanen da, eta larunbat

eguerdi aldera abiatzeko asmoa dago. Urnietako Oianume sagardotegian izanen da bazkaria, eta egun guztia bestan igaro ondotik, herri bueta egingen dute Hernanitik berriz ere autobusean.

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 17AN

Giro ederrean joan dira inauteriak

Eguna mozorrotuta eman ondotik, 50 bat lagun bildu ziren Barrankako bertso-afarian, Aitor Mendiluze eta Sustrai Colina bertsoariekin

Jaione ZABALO

Inauteriak giro bikainean joan ziren Ezkurran ere. Otsaileko hirugarren larunbata paregabea izan zen herriarrentzat eta hurbildu ziren guztientzat.

Urtero bezala, larunbat goizeko 10etan frontoian elkartu ziren haur, gazte zein helduak. Denak mozorrotuta etxez etxe ibili ziren Oihana eta Oihana trikitilariekin. Bazkaldu ondotik,



ARGAZKIA: JAIONE ZABALO

Haur, gazte eta heldu kuadrilla polita bildu zen inauterietan.

helduek baserriak alaitzen zituzten bitartean, haurrek eta gazteek frontoian hainbat jokoz, musikaz eta txokolata-daz gozatu zuten.

Gauean afaria Barranka Ostatuan izan zen. 50 bat lagun elkar-

tu ziren. Ederki afaldu eta gero, Aitor Mendiluze eta Sustrai Colina bertsoariekin batzuen masailak gorritu zituzten: batean Fidel Castro bertan zegoela, Cupidok norbait ukitu zuela bestean eta an-

tzeko hainbat kontu ibili zituzten bertso ederrek kantatuz.

Bukatzeko, trikitilarien txanda izan zen. Dantza eta abestiek askok biharamunera arte luzatu zuten inauteri eguna.

DONEZTEBE

Hasi dira **MALERREKA PROMOZIOAK** promotorak egindako etxebizitzak eraikitzen.

Dagoeneko 2. faseko etxebizitzak salgai



- ✓ Zure beharren **araberako finantziazioa**, Rural Kutxaren babes eta abalarekin
- ✓ **B ziurtagiria**, isolamendu berriak, sistema aerotermikodun berogailua (kontsumo baxua)
- ✓ **Material nobleetan** eraikia
- ✓ **Barne materialak aukeran**: egurra, azulejoak...
- ✓ Sukaldea eta lokala gurekin erosiz gero, **%11 aurreztuko** duzu

Informa zaitez
EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardí kalea z/g | **DONEZTEBE**
629 951 170



ZURE BEHARREN ARABERA,
2 eta 3 logelako etxebizitzak.
Zuk erran eta guk egin!
58 m²koak:
sukaldea/egongela, 2 logela, 2 komun.

74 m² eta 90m² ingurukoak:
3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun.

135.000 €tik goiti

LOKALAK ere baditugu,
txoko, garaje edo
lokal komertzialak egiteko

GIZARTEA

GIZARTEA → MARTXOAREN 6TIK 20RA

Errigoraren bosgarren kanpaina hasi da

Errigorako bi
sorten zozketa
eginen du
Ttipi-Ttapak

TTIPI-TTAPA

Abian da Nafarroa Hegoaldeko uzta eskutik eskura kanpainaren bosgarren edizioa. Joan den urtean, inoizko eskaintza zabalena osatu zuten, eta aldi berean, ordura arte bi kanpaina zirena kanpaina bakar izatera pasatu zuten. Halaxe izanen da aurten ere, oliba-olio birjina estra eta kontserba-sortak, denak aldi berean eskatu beharko

baitira. Banaketa eta ordainketa, berriz, bi txandatan egingen dute.

Eskaerak martxoaren 6tik 20ra egin beharko dira: online (errigora.eus), eskuorri bidez edo hainbat herri-tan. Gure eskualdean, lerro hauek idazterakoan hauek ziren eskaera egiteko zehaztutako tokiak: Beran Botxo ostatuan, Lesakan Arrano ostatuan, Iturenen Iturraldean etxean, Elizondon Kattalingorri-Zangue dendan, Leitizan Torrean eta Areson Sasstinea tabernan. Baina Errigoratik jakinarazi dute, toki gehiago ere izan daitezkeela.



ARGAZKIA: ERRIGORA

Nafarroako hegoaldeko produktuak gure sukaldeetara ekartzeko aukera izanen da berriz ere.

Eskaera egiten dutenek oliba-olio birjina estra apirlean hartuko dute eta ordaindu ere orduan egin beharko dute. Kontserbak, aldiz, ekain hasieran egin beharko dira.

Iazko edizioan, erantzun ona izan zuten Errigorako produktuek. Eskualdeko datuei erreparaturaz, gutti goitibeheiti 315 familia inguruk egin zuten bat ekimenarekin. Oliba-olio birjina estra-
ren 848 bidoi eskatu zituzten eskualdean: %66k konbentzionala

eta %34k ekologikoa. Kontserben kasuan, 846 sortaren eskaera egin zuten, guztira 10.152 ontzi: %64k konbentzionala eta %36k ekologikoa.

ZOKKETAK TTIPI-TTAPAN

Ttipi-Ttapak Errigorako bi sorta zozketatu ditu ERRAN.EUS atariaren aplikazioa deskargatzen dutenen artean. Ttipi-Ttapa aldizkariak eta Xorroxin irratia sortutako edukiak modu erraz eta arinean, dohainik, erakusten di-

tuen tresna da aplikazioa eta Android eta iOS sistema eragileak erabiltzen dituzten mugikor eta tabletetan erabil daitezke. Aplikazioa deskargatu eta horren pantailazoa Ttipi-Ttapa WhatsApp zenbakira (744 484361) bidaltzen duten guztiak Errigorako produktuekin osatutako bi sorten zozketan sartuko dira. Erne ibili, urtean zehar zozketa gehiago egingen baititu Ttipi-Ttapa ERRAN.EUS aplikazioaren erabiltzaileen artean.

MARTXOAREN
6TIK 20RA
ZUBI BAT
SUKALDERA

Ttipi-Ttapak **ERRIGORAKO BI PRODUKTU** sorta zozketatuko ditu **ERRAN.EUS** aplikazioa mugikorrean edo tabletean jaitzi eta pantailaren argazki bat (pantailazoa) bidaltzen duzuen guztien artean



- DESKARGATU ERRAN.EUS APLIKAZIOA
- PANTAILAREN ARGAZKI BAT (PANTAILAZOA) BIDALI
- TTIPI-TTAPAKO WHATSAPP ZENBAKIRA: 744 484 361
- EPEA: MARTXOAREN 19A BAINO LEHEN



erran

ERRIGORA



GIZARTEA → 302 PARTE-HARTZAILE

Eskualdeko hainbat herritan ikastaroak jasotzen ari dira

Joan den urtean baino 100 lagun gehiagok eman dute izena

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko kideen parte-hartzeak ederki islatzen duenez, bai murgilduta dabiltzan ikastaroek, bai eta aurtien eginiko lehendabiziko bidaiak ere arrakasta handia izan dute.

302 parte-hartzaile buru-belarri dabilta Donezteben, Elizondon, Mugairin, Leitzan, Ur-dazubin, Elgorriagan eta Beran eskaintzen ari diren ikastaroetan. Joan den urtean baino 100 lagun gehiago dira izena eman dutenak.

Zehazki, 70 lagun ari dira yoga saioetan, bertze 36 mugikorren erabileran, 76 informatikan eta 49 luzaketetan. Guztiak hagitz kontent daude jasotzen ari diren saioetan ikasitakoarekin.

AZKAINA ETA BAIONAN

Otsailaren 22an eginiko urteko lehendabiziko bidaiak Azkaine eta Baiona bisitatu zituzten. Guztira 118 kide joan ziren, hiru autobusetan eta bi talde egin zituzten.

Bat zuzenean Azkainera joan zen, Lartigue 1910 oiha fabrika ikustera. Bien bitartean, bertzeek Baionako katedrala, museoa, udal-etxea, merkaturua... ikusteko eta bertako txokolatea eta magra erosteko aukera izan zuten. Ondotik, Azkainen izan zirenak Baionara jo zuten, eta alderantziz, guztiak guztiaz gozazaten.

Oihala fabrika izan zen bereziki gustatu zitzaiena. Izan ere, hariak abiapuntu koloretako telak egiteko prozesu tradizionala ezagutzeko aukera izan zuten. Ondotik, Dantxarinek Oihana jatetxean bapoz bazkaldu zuten.

Azpimarragarria da ikastaroetan eta ateraldian elkarteko kideek izaniko interesa.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Ikusmira eta giro ederra izan dira lehendabiziko bidaiako osagai nagusiak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hondarribian izan dira otsailean, martxoan Etxalarrera joanen dira

Euri erauntsiek ez zuten Elkarteko mendizaleek aurreikusia zuten ateraldia bertan behera utziarazi. Otsailaren 20an, 38 lagun Hondarribiko itsasargitik abiatuta, Guadalupera joan ziren. Bizpahiru orduko ibilaldiaren ondotik, Euskal Herriko ehorzketarik zaharrena ikusi zuten, museoan. Ederki bazkaldu zuten, eta ondotik, musika lagun, kanta eta dantza artean ibili ziren. Heldu den irteera martxoaren 20an egingen dute, eta Etxalarrera joanen dira.

APIRILAREN 26AN

Mus txapelketa azkarra antolatu dute lehendabizikoz

Fernando ETXEBERRIA

Herriz herriko bestetako bazkari eta mus partidak jokaturik, Doneztebeko mus txapelketarako 34 bikote sailkatu dira. Martxoaren 15ean, ortzegunean, jokatuko da horien arteko txapelketa, Donezteben. Apirilaren 26an, berriz, ortzegunean, urteroko Euskal Kantuen hitzordua izanen dute Dantxarinear. Ordurako, Arkupeak elkar-

teak, Biok enpresaren babesarekin, mus txapelketa azkar-azkarra antolatu du.

Bi orduko iraupenera mugatzeko, 16 bikotek jokatzea aurreikusi dute. Horiek zozketa bidez aukeratu dira. Aitzitik, izen-ematea 32 bikotek egingen balute, bi talde sortuko lirateke. Azken kasu horretan, finala talde bakoitzeko irabazleen artean jokatuko litzateke.

FLASH

Donejakue bidea egiteko azken kontuak lotzen ari dira

Aspaldixko buruan zerabilten Donejakue bidea egiteko ideia. Batzuek Iparraldeko buelta eta bertzeek, berriz, Frantziakoa egin nahi dutela aintzat hartuz, bi talde osatu dituzte. Iparraldeko ibilbidea egiteko 8 lagun elkartu dira; Frantziakoa egiteko, aldiz, 12. Talde bakoitza bere aldetik bildu eta datak, garraioa, lotarako tokia... bilatzen eta xehetasunak lotzen hasia da.

KULTURA

EUSKARA → BERTSO EKIMENA

Eskualdean asteburu honetako saioetan erabakiko dira Bardoetako finalistak

Erratzun, Leitzan eta Lesakan jokatuko dituzte finalurrekoetako itzulerakoak

TTIPI-TTAPA

Asteburu honetan eskualdean jokatuko dituzten hiru saiotan erabakiko dute zein hiru talde sailkatuko diren martxoaren 24an Lekunberriko Toki Alai sagardotegian jokatuko den Bardoak ekimeneko finaleira.

Joan den asteburuan jokatzekoak ziren finalurrekoen joaneko



UTZITAKO ARGAZKIA

Addams familiak Erratzun kantatuko du ortzirelean, finalerako txartelaren bila.

saioak eta honetan jokatuko dira itzulerakoak.

Martxoaren 9an, ortzirelez, bi saio izanen dira. Erratzuko Zubipunta ostatuan *Addams fa-*

milia eta Topa bardo kopala! ariko dira 21.00etatik aitzinera. Ordu bete beranduago, 22:00etan, eguneko bigarren saioa hasiko da, Leitzako gatzetxean, herriko *Alda -*

tzea komeni eta *Berako Ibardin: Hiru ta lau dira zazpi* taldeekin.

Bardoetako bigarren fasea martxoaren 11n bukatuko da, Lesakako Arrano elkartean, herri-

ko *Unibertsolariak* eta (*Larraun da Araitz*) *Bi dozena* taldeekin. Saioa 17:30ean hasiko da.

FINALERAKO SARRERAK SALGAI

Bigarren fase hau bukatuta, hiru talde sailkatuko dira martxoaren 24an Lekunberriko Toki Alai sagardotegian jokatuko den finalerako. Finalerako zein ondoko afarirako txartelak salgai daude www.bertso.sarrerak.eus webgunean. Era berean, Lekunberriko Lanbroa liburutendian izanen dira asteazkenetik aitzinera.

Finalerako eta afarirako dagoen sarrera kopurua mugatua dela kontuan hartu behar da.

MUSIKA → OTSAILAREN 24AN ETA 25EAN

Berako piano ikasleak saritu dituzte Andoainen

Urrezko sei domina eta zilarrezko hiru lortu dituzte

TTIPI-TTAPA

Euskal Herria eta Frantziako 733 pianojoleak parte hartu zuten otsailaren 24 eta 25ean, Andoaingo XIII. Piano

Jaialdian. Berako Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolako Mari Jose Bergara Iraeta pianoirakaslea lagunduz bederatzik ikasle aurkeztu ziren, arraskasta handia lortuz:

A mailan (11 urte arte), bakarlarietan, urrezko domina eta ohorezko diploma lortu zuen Luka Newellek eta lau es-



UTZITAKO ARGAZKIA

Andoainen saritutako ikasleak, Mari Jose Bergara irakaslearekin.

kutara, urrezko domina Axuri Zapiainek eta Onintza Goiak, alde baretik, eta Mikel Canok eta Jimmy O'Learyk, bertzetik, eta zilarrezko domina Saioa Gartzia eta Jone Huizik.

B mailan (12-14 urtekoak), bakarlarietan, urrezko domina Ainhoa Elgorriagak irabazi zuen.

C mailan (14-18 urte), bakarlarietan, zilarrezko domina eskuratu zuen Nahikari Loiarlek.

Azpmarratu beharrekoa da, 9 urteko ikaslea den Luka Newellek Bastero aretoko Bukara Kontzertuan pianoa jotzeko aukeratu izan zela, 500 lagunengaitzinean.



Ezkontza gehigarria

Udaberria hurbildu ahala, aunitzen tripako trimeletak dantzan hasten dira, egutegian gorriz markatuta duten egun berezi horrek sorrarazten dituen kezka eta urduritasunak azaleratuz joaten baitira. Hori guztia kudeatzeko, azken prestaketa-lanetarako laguntza eskaintze aldera, ondorengo orrialdeetan gomendio batzuk bildu ditugu.



Gizonezkoak

NORTASUN ETA ESTILO ARTEKO AUZIA

Jantzia aukeratu aitzinetik, nortasuna arakatzea ezinbertzeko urratsa da. Hori aintzat harturik, bikoteak zehazturik duen boda estiloarekin bat egiten duen aukeraren bila jo behar lukete.

Klasikoen aldeko apustua egin dutenei, originalak izan nahi badute, osagarriak tentuz aukeratzea komeni zaie: gorbata estanpatuak, trajearekiko alde nabaria duen eskuzapia... dira aukeretako batzuk. Modernotasuna ardatz dutendako, berriz, sakelako erlojua egokia izan daiteke. Kasu batean zein bertzean, gorbatak lehenesten dira, begiztekiko kontrastean.



JUAN J. PICABEA Ameztia z/g
DONEZTEBE 948 451 670
Senargaietzako trajea
ZURE NEURRIRA



ROY ROBSON
RAMON SANJURJO




RAMON SANJURJO



RAMON SANJURJO





Kris OSORRI SAIOA
leapandegia

948 580 025 · Giltxaurdi, 14 ELIZONDO

EGUN BEREZIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK

Karma ESTETIKA
Altzate 33 BERA · 948 63 09 04

ANDREGAIENTZAKO ZERBITZU OSOA
Ile-apaindegia
Aurpegi tratamenduak
Gorputz tratamenduak
Manikura
Pedikura | Makillajea

Amaya Picabea
CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

Ameztiá · DONEZTEBE · 948 450 163 · centroamaya@zarbo.net

Estetika

EDERTASUNA AZALERATUZ

Ezkon egunaren bueltako egunek sentimendu ederrak eragiten dituzte. Egun berezia sentimenduak azaleratzeko eta edertasun fisikoarekin hornitzeko aukera bikaina da. Bien harmonia lortzea garrantzitsua da, ongi sentitu ezean ametsetako egun perfektua, hankaz goiti joan daiteke eta.

Horretarako, batik bat, larruazala zein ilea garbitu eta hidratatzeko tratamendu pertsonalizatuak, bakoitzaren beharretara egokiturikoak, dira adituek gomendatzen dituztenak. Tratamenduaren fruituak jasotzeko, hilabete lehenago hastea komeni izaten da. Halakoak egin ezean, azalak makillajea xurga dezake, iraupena mugatuz. Ile orrazketan ere, eragin nabaria du, bai orrazterako orduan, bai eta itxuran ere.

Makillajea

Makillajea, behar bezala aukeratzeko, larruazalaren, begien eta ilearen kolorea aintzat hartzea garrantzitsua da. Horrela, tonuen araberako hautaketa egin dezakegu. Aukera zeinahi izanik ere, larruazala biluzik uztea gomendatzen da, masailak ukitu gorrixka soil batez lagunduz. Era berean, soinekoaren zuriatasuna nabarmendu nahi dutenek bekain ilun eta ezpain gorrien aldeko apustua egiten dute. Begietan marroia gailenduko da, diskretutasunaren adierazle. Begirada indartu nahi dutenek, ordea, beltza erabiliko dute, gehiegi markatu gabe, lausotasuna bilatuz. Gaeko ospakizunerarako, berriz, beltz markatua edota zilar kolorea izanen da nagusi.



Orrazkera

Ile bildu dotoreak edo informalak, baina betiere naturalak, dira aurren pil-pilean dauden soineko erromantikoekin eramateko aholkatzen direnak. Ilea solte edo lotuta eramanagatik, txirikordez hornitutako orrazkerak dira nagusi. Ile izurtua aukera bikaina izan daiteke, apaingarriekin edo lorez eginiko koroekin bat egitea errazten baitu. Aitzitik, guztiek ez dute horren aldeko apustua egin beharrik. Bakoitzak mesedegarri zaiona hautatzea komeni izaten da. Txirikordarik gabeko orrazkera nahi izanez gero, behean bildutako orrazkerak hauta daitezke.



ZURE EGUNA URGAIN HOTELLEAN OSPATU!

Ezkontza zibilak

terrazta estalian ospatzeko aukera

Koktela:

kanape aukera anitza, gazta mahaia, garagardo txokoa...

Bazkaria:

280 lagunentzako tokia, dekorazio pertsonalizatua, mahai borobil eta luzeak, plater paregabeak

Dantzaldia:

“Barra – libre”

Mahai goxoa txokolatzeko iturriarekin, photocall...

Afaria:

Bokadutxoak indarberritzeko

Hotela:

50 lagunentzako logelak



Atsegin handiz
informatuko zaituztegu

948 592 063
reservas@hotelurgain.com



Zaldúa argazkilariak

Elizondo - Doneztebe WWW.fotozaldua.com
948 580 491 948 450 364

Argazkilariak

OROITZAPENEN GORDAILU

Argazkilaria aukeratzeko orduan haren ibilbide profesionalaren berri izatea garrantzitsua izan daiteke. Bertzeak bertze, naturaltasuna azaleratzeko duen gaitasunaren eta eskaintzen dituen zerbitzuen berri izatea gomendatzen dute. Halakoetan, eskualdekoen profesionaltasunaz fidatzea garrantzitsua da. Esaerak dioen bezala, *lauda ezazu urruna, zeuregana ezazu hurbila*.

Argazkiak egun handia baino lehenago hasten dira maiz, *shootin-garekin*, eta ondotik ere egiten dituzte aunitzek; bereziki, jantziak ondatzeko tokiak aukeratzeko dituzten kasuetan. Horrela, ezkontza eguna ingurukoekin gozatzeko aprobetxatzen dute. Gaur egun, bortz minutu inguruko film laburrak ere egiten dira, boda eguna sare sozialen bidez lagun eta familiakoekin partekatzen.

Argazki bilduma lagun eta familiakoekin argazkiekin osa daiteke, eta argazkiak biltze horretan, traola lagungarri gerta dakiguke.



WWW.ASTEFOTOIRUN.COM

IRUN

Artefoto

FOTOGRAFÍA VIDEO

EZKONTZETAKO ARGAZKILARITZA ARTISTIKOA

639 82 86 21 | info@artefotoirun.com
www.artefotoirun.com



Alex Gaztelumendi.com

EZKONTZETAN ESPEZIALIZATURIKO ARGAZKILARIA

ARGAZKI ERREPORTAJE NATURALAK, EZBERDINAK ETA DIBERTIGARRIAK

615 747 028

WWW.ALEXGAZTELUMENDI.COM



Iruñea - Irun errep. 60km
31760 ETXALAR
T. 948 635 000 | F. 948 635 263
info@etxalar.com
www.etxalar.com



EZKONTZA ZIBILAK


ORAIN AZKUA ARETO BERRIAN EZKONTZA ZIBILAK OSPATZEKO AUKERA ESKAINTZEN DIZUGU



**EGUN OSOA, INORA MUGITU GABE,
BERTAN PASA DEZAKEZUE:
ZEREMONIA, BANKETEA
ETA DANTZALDIA**

- 275 lagunentzako jantokia
- Ezkontzetako menu aldagarria
- Xoko politak bai kanpoan baita barruan ere
- Eguraldi onarekin musika terrazan
- Ongi etorri koktela
- Lunch afariak
- Gaua hotelean pasatzeko prezio bereziak taldeentzako
- **SUITA OPARITZEN DUGU EZKONTZA GAUEAN**





Kalash JOYEROS

DISEINU PERTSONALIZATUAK.
ZURE IDEIA "BITXI" BIHURTUKO DUGU.
ETORRI ETA IKUSI

Banatzaileria ofiziala:
VICEROY CASIO CITIZEN ECO-DRIVE

Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519

Bitxiak

BATASUNAREN ADIERAZLE

Ezkontzetako eraztunak bizitza osorako maitasun eta batasunaren adierazle sinbolikoak dira. Tradizioz ezkongaeiek berdinak izanagatik, gaur egun, maiz, bakoitzaren gustuen arabera aukeraketa egiten da.

Diamantez hornitutakoak sekula ez dira zaharkitzen. Horien artean, zuri eta gardena dira kalitate handiena dutenak.

Aurtengoan, material eta kolore nahasteak dituzten eraztun laukiak dira nagusi. Horiek berezkitasunari bide emateko aukera eskaintzen dute. Urre arrosak, erraterako, ukitu erromantikoa ematen dio, eta urre zuriarekin edo hainbat koloretako harriekin nahasiz, edertasun gorenara lor liteke.

Areago, gaur egun, eraztunak ez ezik, lepokoak, erlojuak edota bertzelako osagarriak aukeratzen dituzte anitzek.



Zuk ere egin dezakezu...

...baina zerbaiz gehiago nahi baduzu...

bortzirudi
Diseinu eta publizitate tailerra • Taller de diseño y publicidad

Ander eta Forane

Aukerak, aholkuak eta prezio ezin hobeak eskeintzen dizkizugu!

100 gonbidapen 35 euro

bortzirudi@gmail.com • Bera • 948 631 521

Gonbidapenak

MARGOZ BUSTITAKO JAKINARAZPENAK

Ezkontzetako gonbidapenak bikote anitzten aurkezpen gutunak dira. Egun handia aurkezteko, ehunka aukera izaten dira, baina, oro har, diseinu modernoek gailentzen dira.

Urmargoz eginiko marrazkidun gutunazalek indar handia dute. Izan ere, marrazki horiek pertsonalizatzeko aukera ere eskaintzen dute, norberak bere estiloa mantentzeko.

Gonbidatu guztiek, bai joateko aukera dutenek, bai eta joaterik ez dutenek ere, ezkontza bertatik bertara segitzea nahi duten ezkongaeiek, ezkontzako argazkiei eransteko traola gonbidapenean berean zehaztuta utz dezakete. Traola zehatza izateak bertzeekin bat ez egitea eta bilaketa lagunartera mugatzea ahalbidetu dezake.



ZURE EZKONTZA GONBIDAPENA PERTSONALIZATUA!!

Une berezi horretarako, ezkontza gonbidapen berezia lortu ezazu pertsonalizatutako gonbidapenak aurkeratuz, zure argazki eta testuarekin.

Hitzordua hartzeko NARBARTE 686 74 77 13 648 84 71 67

Mailposta publizitate banaketak inprimategia

Loreak

SORTATIK HASITA

Loreak ezkontzetako oinarrizko osagarriak izaten dira, egun be-reziari poztasun, kolore, bizitasun eta ospakizun ukitua ematen diotenak. Loreen aukeraketa, oro har, lore-sortarenetik abiatzen da. Emazte aunitzek *bouquet* estiloa hautatzen dute, guztiendako aproposa den sorta mota. Aitzitik, ohikotik ateratzea aukera ederra izan daiteke. Emazte bakoitzaren lore kuttunei tarte egitea komeni izaten da, berezkotasuna mantentzeko. Baina, zalantzen aitzinean, kalek, arrosek eta orkideek ez dute hutsik egiten. Era bertsuan, udaberri eta udazkenean koloreen arabera hautatzeak komeni da. Sasoi horietan arrosa eta laranja eztei-kolore bikainak dira. Hori aukeratua delarik, *hasiak egina dirudi* autoa, zeremonia, mahaia... apaintzeko loreak sortaren arabekoak baitira.



Oroigarriak

ERABILGARRITASUNA OINARRI

Ezkontzetako oroigarriak, maiz, etxean zokoratuta gelditzen dira. Hortaz, aukeratzeko orduan, bereziki, erabilgarritasunari begiratu behar zaio. Beroaz babesteko haizemaileak, olioak, te kutxatxoak, ardoa, kartak... dira aukeretakoz batzuk. Bada erosotasuna oparitzen duenik, takoiak ordezkatzeko oinetako lau ero-soak, erraterako, aukera bikaina dira. Aitzitik, opari materialak maite ez dituen horietakoa bazara, uneko argazki kameretako argazkiak oroigarri bikainak izan daitezke. Argazkiek inon eta inoiz oztoporik eragiten ez dutelako...



LORE SORTAK
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK
NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK

ZU loredenda
dekorazioa
osagarriak

f

Altzate, 33 zuloredenda@hotmail.com
31780 BERA Tel.: 948 625 786

Ezkontza
bakoitza...

...berezia da
guretzat

Jaime Urrutia 21 | Tel. 948 58 10 53 | ELIZONDO

**2018ko EZKONTZETARAKO
ESKAITZA**

EZKONTZA OPARIAK EROSITA
AUTOKO LOREAK OPARI

Andregaien erramueta espezialistak • Elizen dekorazioa
Serpenti kanoiak • Ezkontza oparietan aukera zabala
Ilerako apaingarriak • Arrak • Ligak • Gonbidapenak

NARBARTE • T. 948 59 22 00 • www.gardenesther.com f

ZUBIONDO

Jatetxea sagardotegia



- 350,160 eta 40 lagunendako hiru jangela
- Bazkalondoa nahi bertze luzatzeko aukera
- Auto eta autobusendako aparkalekua
- Haurrendako jolasparkea
- Koktelarako leku aproposa

Eskatu gure ezkontzetako menua!!

Alasta Karrika BERA • T. 948 625 472
www.zubiondojatetxea.com



Jatetxeak

NATURAREN INDARRA

Ezkontza eguneko ordu gehienak jatetxean ospatzen direnez gero, jatetxeak egun ahaztezina izateko osagai guztiak behar ditu. Kanpoko erritual eta otorduek indar handia hartu dute, landareriaren erdian, ametsetako inguruneak sor baitaitezke. Halakoetan, mahaiaren bueltan zein dantzaldirako gunea argiaren bidez eta aulkiak lorez, hosto berdeko landarez edo kartelez apain daitezke. Eta noski... menua itsu-itsuan aukeratu beharrean, lehendik probatzera joatea komeni da. Halakoetan dastaketak ezkontzan berean eginen den otorduaren arabera, afari edo bazkariko orduan egin beharko lirateke.



ezkontzetan adituak

Foruen plaza · BERA | T. 948 62 55 40 | T. 948 625 542
www.hotelchurrut.com

BEOLA

Posada-Palacio

Zuen egun berezia ospatzeko leku berezia

Nagusia, 13 · ALMANDOZ | 948 585 300
www.beola.com



3 jantoki



menu desberdinak eta pertsonalizatuak



2 aparkaleku




Irurita eta Elizondo artean kokatua dago. Lorategi zabala eta terraza desberdinak ditu, ongi-etorri koktelak eskaintzeko ezin hobekak. Bazkaria berriz, jangela ederrean egin liteke edo kanpoko lorategian jartzen dituzten jaima berezietan.

Bikoteak hala eskatuz gero, gonbidatuei harrera egiteko ezkontza aurreko ekitaldiak ere prestatzen dituzte. Gainera, gonbidatuek hotelean ostatu hartzeko aukera ere izanen dute: 84 logela bikoitz, jatetxea, erretegia, kafetegia, igerileku pribatuak eta beste beste zenbait zerbitzu izanen dituzte eskura, une bakoitzaz gozatu dezaten.

Gainera, ezkongaien menua aukeratzeko orduan langile espezializatuen aholkuak jasotzeko aukera izanen dute momentu oro. Maher, ospe eta prestigio handiko enpresa, arduratzen da zerbitzuaz eta edozein zalantza eta eskaera bereziki erantzuteko bitartekoak dituzte.

Hotel Baztan

606 40 78 85 / info@hotelbaztan.com
Barrio Etxerri, s/n, 31700 Elizondo, Navarra
www.hotelbaztan.com



MIKEL SALABERRI

*Henriko bestak...
Ezkontzak...
Kinto bestak...
Inauteriak...*



T. 630 40 20 39
mikeltekla@hotmail.com

Musika

NOTA BAKOITZA SENTITUZ

Ezkontza egunerako garrantzitsua da bikotearentzat garrantzia berezia duten kantak aukeratzea. Ongi etorri koktelean, tarta moztu eta banatzeko momentuan, elizara sartzerakoan... entzun nahi dituzun kanta berezi horiek ez ezik, bazkalondoko musikak, gonbidatuentzat ere, loteslea izan behar du.

Bidaia

JOMUGA LASAIA

Ezkontzako egun handiaren ondotik, urduritasunak edo aitzinetik eginiko prestaketa-lanek eragindako nekeaz atzendu eta lasaitzeko momentua ailegatzeko da. Hondartza garden eta luzeen lasaitasunaz goatzeko aukera ematen dutenak eta antzinako kulturen lekukotasunak dituzten herrialdeak dira bisitatuena.

endara **edj's**
deejays

ZURE MUSIKA
Ezkontzak, Ekitaldiak, Bestak...

Info gehiago: 605 762 880
www.endaradeejays.com



TAKA TUKA

bidaiak

15 URTE BETETZEN DITUGU!

eta ospatzeko, %5 eko
deskontua zure bidai guztietan

HEMEN DAGO ZUEN AMETSETAKO BIDAIA

Eztegara pasealekua, 30 A • 31780 BERA (Nafarroa)
Tels.: 948 630 451 / 948 630 641
info@takatukabidaiak.com
www.takatukabidaiak.com




Mirador

de YRISARRI

Mendien magalean, zuen ametsetako ezkontza ospatzeko luxuzko tokia. Ikuspegi paregabeaz gozatuz kanpoaldean aperitiboa hartzeko aukera. Domotizatutako areto ederra, espazio irekia, zutaberik gabea. Gonbidatuek gure etxoletan, jauregian edo aterpetxean ostatu hartzeko aukera dute.



www.miradordeyrisarri.com / info@miradordeyrisarri.com / 948 92 89 22



MARTA ÁLVAREZ / "Bodas para Dummies" liburuaren egilea

Mirador de Yisarrin ospatzen diren ezkontzetan ukitu berezia nabari da. Izan ere, Marta Álvarezek, wedding planer ezagunak eta 'Bodas para Dummies' liburuaren egileak, du gune hau kudeatzeko ardura, xehetasun guztiak mimoz zainduz.

III. BAZTAN-BIDASOAKO



STOCK FERIA

MARTXOAK 10,11 DE MARZO

DONEZTEBE (POLIKIROLDEGIA)

LARUNBATA/SÁBADO: 10:00 - 20:00

IGANDEA/DOMINGO: 11:00 - 19:00


Parte hartzen duten dendak / Comercios que participan:

ARGIBEL OPTIKA, ARTLEPO - ONDDO TA PUNTO, ARTURO MODA-ETXEKO EHUNKIAK, CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN AMAYA, CALZADOS VIRGILIO, FANTXIKE MODA, IPINGI MODA, KIMETZ BELARDENDA, KUKUKA HAUR ARROPA DENDA, MAITE MODA, MARTZUTZAK MODA, MERTXE MODA, ORTZADAR MODA, PERFUMERÍA ALÚSTIZA, ZANGUE OINETAKOAK, ZELA KIROLAK.

Antolatzailea / Organiza:



Laguntzaileak / Colaboran:



GIZARTEA → GOTZONE SESTORAIN LEITZARRA ETA MAITE SANCHEZ HERRITARRA GONBIDATU DITUZTE MARTXOAREN 10EAN

‘Goizuetan lan eta bizi’ dinamikaren bigarren jardunaldia larunbatean

Generoaren ikuspegitik, emakume ekoizleak eta elikadura burujabetza izanen dute hizpide

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 10ean, larunbatean, 18:00etan Udaletxeko Batzar Aretoan egingen da *Goizuetan lan eta bizi* dinamikaren II. jardunaldia. Maite Sanchez eta Gotzone Sestorain izanen dira gonbidatuak.

Bigarren jardunaldi hau berezia izanen da. Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna izanik, bi gonbidatuak emakumeak izanen dira. Alde batetik, Goizuetako Dominiako Maite Sanchez abeltzaina,

eta bestetik, Leitzako Gotzone Sestorain, Gorritz baserriko artzaina eta gaztagilea ariko dira hizketan. Baina hori bakarrik ez. Gonbidatuak beraien esperientziak kontatzen hasi aurretik, Mugarik Gabe Nafarroako elkarteokak *Emakume ekoizleak eta elikadura burujabetza Nafarroan, generoaren ikuspegitik* gaiaren inguruan ariko dira.

Udal aktak eta ebazpenak webgunean

Herritar guztiei transparentzia osoz Udalaren jardunaren berri emateko, batzar orokorretako aktak eta alkatetaren ebazpenak www.goizueta.eus webgunean zintzilikatzen hasi dira. Dagoeneko ikusgai daude 2017ko azkeneko bi aktak, jogan den urtarilaren



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Herriko pilotariek hiru txapel lortu dituzte Malerrekakoan

Txapel uzta polita ekarri dute herriko pilotariek Malerrekako txapelketatik. Erreka taldearekin ari den Iker Salaberriak (erdian) elite mailako txapela jantzi zuen, Mariezkurrenarekin bikote eginez. Jubenil mailan, berriz, Umore Onako Aizkorbek eta Apezetxeak lortu zuten txapela.

30eko batzarrean onartuak gelditu zirenak.

Aurrerapauso honen beste helburuetako bat

herritarrak eta Udala elkarrengandik gertuago egotea da, eta horrela, herritarrak, udaletxera

joateko beharrik izan gabe, Herriko Etxean gertatzen denaz sarean informatzea.

NAFARROAKO ARTXIBOAK

Baztan eta Leitzako udal artxiobotako dokumentuak ere zaharberritu dituzte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak Erriberri, Baztan, Leitza, Caparros eta Mendigorriko udal artxiobotatik ekarritako 31 dokumentu berezita esku hartu du, horien kontsulta eta etorkizuneko kontserbazioa bermatzeko xedez. Esku-hartze horren bidez, ondare dokumentala zaharberritu eta digitalizatu da, nagusiki. Ana Herrera Kultura kontseilariak dokumentu horiek

udal ordezkariari eman zizkien otsailaren 27an egindako ekitaldian.

Baztango Udaletik dokumentu bakarra eta aparta iritsi da, kaparetasun kolektiboaren aitortpena. Kontuen Ganberak 1440an plazaratutako epaia berresteko agiri honetan, kaparetzat jo ziren haraneko biztanle guztiak. Karlos Vianako printzeak 1441ean berretsitako epaiak haren sinadura darama 3.135 mm-ko



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Dokumentuak jaso zituzten udal ordezkarien artean Andone Salbarredi eta Joseba Otondo, eskuinetik hasita hirugarren eta laugarrena.

luzera duen pergaminozko dokumentuaren bukaeran.

Leitzako Udaletik formatu handiko bi plano ekarri dituzte,

landare-paperean landutakoak, udalerraren iparraldea eta hegoaldea irudikatzen dituztenak.

LEITZA

GIZARTEA → GOBERNUKO ESKUBIDE SOZIALEN DEPARTAMENUARI

Udalak Nafarroako Gobernuko Alokairu poltsan sartzeko bilera eskatu dio

Hutsik dauden etxebizitzak alokairuaren berme guztiekin jarri nahi ditu

JM BARRIOLA

Leitzako Udalak, Nafarroako Gobernuko Alokairu Poltsan sartzeko, bilera eskatu dio Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialen Departamentuari. Bilera horretan alokairu poltsa ahalbidetzeko aukera eta baldintza guztiak landu nahi ditu Udalak. Horrela, Leitzan hutsik dauden etxebizitzak, berme guztuekin, alokairuan jarzea dute helburu.

Nafarroako hainbat udalerrirekin adosturiko hitzarmenak kontuan hartuz, Udalek inguruaren ezagutza eta udalerrian bizi diren herritarrekiko gertutasuna islatu zuten. Era berean, programaren funtzionamenduari buruzko azalpen argiak emanez, pro-



ALKE KULTUR TALDEA

Juanjo Gamio hizlari eta sagar patxakak hizpide

LeitzEKO kontsumo taldeak antolaturik, otsailaren 22an izan zuten hitzordua, Aurreran. Areto bete lagun elkartu ziren Juan Gamiok, Zubialde sagarrondo mintegikoak, eskainitako hitzordura. Sagar patxakak izan zituen hizpide eta horren harira, Gamiok emaniko informazio eta aholkuak izan zituzten ikasbide. Hitzaldia, entzuleek adierazi digutenez, «uste baino gehiago luzatu zen», gus-tura egon ziren seinale. Dagoeneko hurrengo hitzordura begira hasiak dira, inausketa eta txertaketak egiten erakusteko.

gramaren kudeaketa aritzea ahalbidetu dute. Alokairuaren poltsa kudeatzen duen Nasuvinsoa sozietate publikoak, etxebizitza hutsa eskaintzen duen herritarrari pizgarriak eskaintzen dizkio: etxebizitza egoera onen itzultzea, aseguru ba-

Ba al zenekien

Otsailaren 26an Leitzaldean Euskaraldiaren aurkezpena egin zutela? Herritarrek eta instituzioek bat egitea lortu nahi da.

ten kontratazioa, errentaren kobratze puntuala...

Halaber, Nafarroako Gobernuak familia erren-

tariak, diru-sareren edo familia-unitatearen arbera, diruz laguntzen ditu.

MARTXOAK 4, 8, 14 ETA 15

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan, hainbat ekitaldi izanen dira

JM BARRIOLA

Denbora bizitza bada, egu-nera zenbat bizi zara? galdera da martxoak 8aren harira, Leitzaldean bolo-bolo dabilena. Baina, gogoetaz harago, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, sentitu eta pentsatutakoa ardatz, ekin eta egiteko antolatuturiko ekintzak dezente dira.

Martxoaren 8an kontzentrazioa (eguerdiko 12:00etan) eta emakumeen elkargunea (20:00etan, Torrean) izanen dituzte. Aitzitik, martxoaren 4tik usaina hedatzen hasia da herrian. Izan ere, Donostiko Lilatonean parte hartu zuten leitzarrekin. Martxoaren 14an eta 15ean ere han eta hemen ibiliko dira



herritarrak. 14an, asteazkenean, eskolako genero tailerren lanketaren emanaldia ikusgai izanen dute, 11:00etan eskolako jangelan. Biharamunean, berriaz, 'Kontsumoak ba al du generorik?' galdera ardatz, hitzaldia antolatu dute, 19:00etan udaltxeko Batzar Aretoan.

FLASH

Guraso txokoa

Guraso txokoa martxan da dagoeneko eta guraso zein hezitzaileei zuzendutako liburu osatzen hasi dira. Landuko dituzten gaiak hauek izanen dira: osasuna, heziketa, sexualitatea eta informazio eta komunikazio teknologiak. Umeen eta gurasoen arteko harremana sendotzeko edota arazoei aurre egiten laguntzeko tresna baliagarriak izanen dira. Berriki hasiak badira ere, pixkanaka-pixkanaka liburuak gehituko dituzte la jakinarazi dute. Facebook sare sozialaren bidez emanen dituzte berriak.

Altsasuko auzipetuen alde

Joan den urtean, izandako tabernako errietaldi baten ondoren auziperatutako zortzi gazteen aurkako epaiketa hasi baino lehen, Nafarroatik barrena martxa bat antolatu dute, gazteei elkartasuna adierazteko. Martxoaren 10ean, 12:00tan Leitzako eskolan aparkatu eta txarangarekin eta momo txorroekin plazaraino joatekoak dira. Plazan auzipetuen gurasoei auresku bat dantatzeko zaie eta, segidan, horiek hitza hartuko dute egoeraren berri emateko. Ondoren salda eta pintxoak banatuko dira.

GIZARTEA → MARTXOAREN 8KO

Emakumeen Nazioarteko Egunari begira

Herritarrei ekitaldietara joateko deia egin diete

TTIPI-TTAPA

Emakumeen Nazioarteko Egunean ospakizunak eta aldarrikapenak bat egingo dute beste urte batez. Ohikoa denez, afari autogestionatua egingo dute herriko emakumeek, Pake Toki elkartearen

biduko dira 21:00etan. Bestalde, Aresoko Udal taldeak bat egin du *Denbora bizitza bada, eguneroko zenbat bizi zara?* adierazpenarekin. Hala, tokiko erakundeetatik berdintasun politikak sustatzen jarraitzeko konpromisoa hartu dute; herriko emakumeen behar zehatzak ikustarazi eta adierazpen guztiei erantzuteko dagozkien neurriak hartuz. Horrekin batera, emakume eta gizonen arte-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Afari autogestionatua egingen dute Pake Tokin ostegunean.

ko alde guztiak gainditzeko jarduerak bultzatu eta mugimendu feministari laguntzeko konpromisoa ere hartu dute. Bide batez, bizilagun guztiei egun horren inguruan egingo diren ekitaldietara joateko gonbidapena ere luzatu nahi izan diete. Hori hala izanik, martxoaren 8an udal bulegoa ixtea erabaki dute, bertako langileen greba eskubidea errespetatzeko.

FLASH

Komunikazioa eta emozioak hizpide

Guraso Elkarteak, Nazabal eskola eta Gizarte Zerbitzuen eskutik, komunikazioa eta emozioak lantzeko aukera izan dute hainbat gurasok. Martxoaren 5ean egin zuten azken saioa.

MENDIALDEA MANKOMUNITATEA

Artileari irtenbidea eman nahian

Pasa den urtean abeltzainek udal ordezkariekin egindako bileran, artilearekin duten arazoak jorratu zuten. Zabor bilketaz arduratzen den Mendialdea Mankomunitatea eskualdean sortzen den artile kopuru eta erabilera aztertzen ari da. Martxoaren 1ean Mankomunitateko teknikari, udal ordezkari eta abeltzainen artean bilera egitekoa zuten.



Ba al zenekien

Herriko webgunean beraien salgaien berri eman nahi dutenek aukera badutela dagoeneko? Interesa dutenek Udalera deitu beharko dute.

OKILLIN BIZITEGI AUZOA - LEITZA



20 PASSIVHAUS-ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA HASTEAR DA.

2018ko martxoaren 15a baino lehen egindako lehendabiziko hamar erreserbek deskontu eta abantaila bereziak edukiko dituzte.

Informazioa eta erreserbak:

OKM zerbitzu juridikoak | T. 609 130 555 | e.celaya@orekabogados.com

BAZTAN

NEKAZARITZA → MARTXOAREN 10EAN

Haziaren Eguna ospatuko dute larunbatean Zigan

Egitarau zabala aurkeztu duen Baztango Agroekologia Eskola Herritarraren bigarren edizioaren baitan

TTIPI-TTAPA

Bigarren urtez eginen den Baztango Agroekologia Eskola Herritarraren baitan, Hazitik Hoziek antolatzen duen Haziaren Eguna Zigan eginen dute aurten martxoaren 10ean, Zigako herria ere antolatketan lagun dutela. Larunbat goizeko 10:30ean hazien trukea eginen dute. 12:30ean Jakoba Errekondorekin mintzaldia.

Balleko Etxean otsailaren 20an egindako aurkezpenean aipatu zuten, «bigarren urtez, Baztango Agroekologia Eskola Herritarra eginen dugu. Eskola honen helburua herritarrak agroekologiarat hurbiltzea da. Agroekologiak etorkizuna erran nahi du. Agroekologia jaten dugunaz kezkatzea da, jatekoak produzitzeko teknika eta moduetaz ardura hartzea, lan-harremán eta bizi-baldintza justuak bulkatzea,

ingurugiroa eta osasuna zaintzea, landa-eremu bizien alde lana egitea. Gaur egun, nagusi den produzitzeko eredu industrial eta intentsiboarekin nekazariak hankapean hartzen dituzte, kontsumitzaileak jateko eskasekin bazkatzen dira, landa-eremuak desegituratu eta husten dituzte; inguruena pozoitzen dute. Bizia maite dugulako, eredu aldaketa bulkatu beharra dago, agroekologiaren bidea ibili».

Ildo horretatik, iaz, Baztango zortzi elkarte eta erakunderen ekimena koordinatu eta Baztango Agroekologia Eskola Herritarraren izenburupean egitarau bateratua eskaini zuten. 120 herritarrek parte hartu zuten ekitaldian. Alde horretatik, bai edukietan bai parte hartzean balorazio positiboa egin dute.

Aurten elkarte eta erakunde gehiagok parte hartuko dute eta eskaintza ia osorik berri-ahalan dute, «agroekologiaren aukerak mugagabeak direnaren erakusle». Hazitik Hozie, EHNE, Lekarozko Legate elkarte, Elizondoko Aise eta Erlategi elkarteak, Berroetako Gure ametsa elkarte, Anizko Mendiarte elkarte, Anizko herria, Zigako herria, Berroetako



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Agroekologia Eskola Herritarraren aurkezpena egin zuten Balleko Etxean.

herria, Elizondo herria eta Baztango Udala dira parte-hartzaileak.

EGITARAU ZABALA

Larunbateko Haziaren Eguna baino lehen, baratzeko haziak mantentzeko ikastaroa egin zuten otsailaren 24an Oronozen.

Aitzinera begira, **martxoaren 22an**, 19:30ean, *Glisofatoa-Rondup, inguruaren pozoiketa eta jendeen min-bizia* solasaldia eskainiko du Elean Paul Bengoa EHNEko teknikariak.

Martxoaren 24an, 09:00etan Berroetan, bertako zuhaitz espezie eta bariatateak ezagutzeko ibilaldia eginen dute, Xabier Zabaleta gidari dutela.

Elizondoko Aise elkartean garagardo ekologikoa egiteko ikastaroa eginen dute apirilean.

Maiatzaren 12an, berriz, gasnagintza ikastaroa eginen dute Elizondon, Autxitxia gasnategian, Ramon Agirre irakasle dutela.

Ereiaroan, Lekarozko Larraldea sagardotegi eta sagardi ekologikora ateraldia eginen dute Jesus Angel Garciaen gidaritzapean.

Uda ondotik, **burui-**



UTZITAKO ARGAZKIA

Haziak mantentzen ikasi zuten otsailaren 24an Oronozen.

Ia-urrian Asteburu Mikologikoa antolatzen asmoa dute Elizondon, Ibilaldia, erakusketak eta dastaketa eginen dituztelarik.

Urrian Elizondoko Antanborda-Berro aldean, eta **azaroan** Anizen, inguruaren izenak eta toponomia ezagutzeko ibilaldiak eginen dituzte.

Abenduan, zerri mundonga ikastaroaren bigarren edizioa eginen dute. Aurten pateak, saltxitxoak eta odolkiari buruzkoa izanen da eta Lorentzo Sarratea izanen da irakaslea.

Abenduan, ogi ekologikoa egiteko ikastaroa eginen dute, Xabier Akizu irakaslearekin.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T.948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

HARRI LAN, S.L.
ESTRATEGIA AGROECOLOGICA

BAITA ERE HORMIGOI INPRIMATUA →

GIZARTEA → OTSAILAREN 20AN EGINDAKO BISITAN JAKINARAZI ZUTEN

Elizondoko komisaldegira foruzain gehiago ekarriko dituzte

Gaur egun 15 foruzainek egiten dute lan eta iaz 269 gertakari penal artatu zituzten

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Lehendakari, Funtzio Publikoa, Barne eta Justizia kontseilari den Maria José Beaumontek Elizondoko Foruzaingoaren komisaldegia bisitatu zuen otsailaren 20an. Gaur egun, 15 foruzain ari dira lanean eskualde zabal bati arreta emanez, eta laister kopuru hori handituko dela jakinarazi zuen.

Elizondoko komisaldegitik, Baztan, Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Sunbilla eta Xarreta aldeko herriei ez ezik, Arano, Goizueta, Anue, Lantz, Odieta eta Ultzamakoei ere arreta ematen zaie, 27 udalerri eta 26.000 bizilagun denera. Joan den urte-



UTZITAKO ARGAZKIA

Zuhaitzaren Eguna ospatu du Baztan Ikastolak otsailaren 18an

Urteroko ohiturari segiz, Zuhaitz Eguna ospatu zuen Baztan Ikastolak otsailaren 18an. Ikastetxeko Guraso Elkarteak antolatuta, Oinez Basoa 2015eko eremu batean zuhaitzak landatzera joan ziren guraso zein haurrak. Igandean 09:00etan elkartu ziren denak Otsondo mendatean eta gehienak handik oinez abiatu ziren landaketa tokira. Ibilbide laburragoa egin nahi izan zutenek Otsondo Ttikitik abiatzeko aukera ere izan zuten. Gogotik aritu ziren haur eta gurasoak aitzurrarekin zuloak egin eta gero, landareak sartzen Baztango herri-lurretan dagoen eremuan. Landaketa lanak akitzeaz zirelarik, euri tantek Otsondora bueltatzeko ordua zutela abisatu eta bidean goiti abiatu ziren. Otsondon Guraso Elkarteko kideak zituzten zain, aterpe batean euritik babestuz, ekintzan parte hartutako guztiei hamaiketako gozo-gozoa emateko prest.

an, 269 gertakari penal artatu zituztela jakinarazi zuten.

Beaumont kontsei-

lariak Joseba Otondo alkatearekin eta Florentino Goñi herrilari zinegotziarekin bisitatu zi-

tuen komisaldegiko instalazioak eta komisaldegia argazki bat jasozuen oparizat.

MARTXOAREN 10EAN

Paxaka txapelketako finala jokatuko dute Iruritan

TTIPI-TTAPA

Igande honetan jokatuko dira Baztan-Erekako paxaka txapelketaren 18. edizioaren finalerdiak. Zazpi hiru-kote hasi ziren eta ligaxkan lau lehenbiziko postuetan sailkatu direnak, Iruritakoak lauak aritu dira martxoaren 10eko finalerako txartelaren bila.

Ligaxkako partida guztiak irabazi dituzten Mikel Ballarena, Cesar Iñarrea eta Iñaki Etxandi, 4. izan diren Oscar Urrutia, Xabier Ripa eta Kaiet Itoizen kontra aritzeak ziren eta 2. eta 3. izan diren Manu Irigoien, Guillermo Etxenike eta Miguel Angel Iñarrea; Gorka Urtasun, Juan Mari Maia eta Joxe Itoizen kontra.

Irabazleek final handia jokatuko dute larunbatean 19:30ean Iruritako Aranabian. Ordubetan lehenago, hirugarren posturako lehia izanen da.

Aurten ere txapela Iruritan geldituko da.

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Herentzia eta Testamentuak
- Zerbitzu fiskalak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Lan-aholkularitza
- Datuen babesa
- Aholkularitza juridikoa

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

CARLOS GARAÍKOETXEA ETXENIKE
abokatua



Santiago, 59 2C
ELIZONDO
T. 948 581 468
M. 630 354 818

BAZTAN

GIZARTEA → OTSAILAREN 16AN EGIN ZUTEN IREKIERA EKITALDIA

Garuneko-paralisiaren erreferentziako zentroa zabaldu du Aspacek Lekarozen

Arlo horretako profesionalen topaketak eta formazioa bultzatzea du helburu zabaldu berri duten instalazioak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialerako lehendakariorde den Miguel Laparra eta Hezkuntza kontseilari den Maria Solana, Aspacek Lekarozen zabaldu duen Garuneko-paralisia eta antzeko alterazioentzako erreferentziako zentroaren irekiera ekitaldian izan ziren otsailaren 16an, Baztango udal ordezkariekin batera. Bertan gainera aterpetxe turistikoak eta hezkuntza zentroaren zabalte ekitaldia ere burutu zuten.

Lekarozko ikastetxe zaharra, Nasuvinsak gizarte ekimenetarako berreskuratu eta moldatutako eraikinak, Garuneko-paralisia eta antzeko alterazioentzako erreferentziako zentro, turismorako aterpetxe zein hezkuntza zentro bilakatu da. Erreferentziako zentro honen zabaltearekin, Aspacek garuneko-paralisia dutenen zein beraien familiaren bizi kalitatea hobetzeko berte aurrerapuso bat eman du. «Zentroak garuneko-paralisia duten pertsonak zein beraien familiak bizi kalitatea hobe-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Aterpetxe turistikoaren eta hezkuntza zentroaren zabalte ekitaldia ere egin zuten.

tzeko lanean diharduten profesional eta elkarteetako arduradun eta lan-taldeak hartuko ditu», azaldu zuen Miguel Laparra Giza Eskubidetako lehendakariordeak. Laparrak Aspacek emandako pausok ere nabarmendu zituen, «persona horien behar erantzuna emateko zerbitzuak eta programak lantzen dituzte».

Hezkuntza kontseilari Maria Solanak gogoratu zuen Hezkuntza departamentua 2016tik ari dela Aspacekin elkarlanean Lekarozen, *English Week* ekimenaren parte bat han egiten baita harrezkero. «Balorazioa bikaina da, bai ingurua, bai Aspaceko langileek egin dituzten arreta aparta baita ere», adierazi zuen Solanak. Horregatik, Eleaniztasuna eta Irakaskuntza Artistikoen Zerbitzuak zentro horren alde egin du hizkuntza-programa bertan eskaintzeko eta da-

goeneko erreserbak eginak daude hamar aste-tarako, irailaren 17tik azaroaren 23ra. Era berean, Departamentuak beste formazio saio bat aurreikusi duela iragarri zuen «astebeteko seminarioa Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak prestatzeko B2 edo C1 hizkuntza ziurtagiria eskuratzeko Hizkuntza Eskolan».

Nafarroako Aspacek 1971ean ekin zion garuneko-paralisia eta antzerako alterazioak dituzten pertsonen bizi kalitatea hobetzeko itinerario bat lantzeari, hartara adin eta bakoitzaren beharren arabera programa eta zerbitzuak eskaintzen ditu. Bide horretan sortu da Garuneko-paralisia zein antzerako alterazioak dituztenentzako erreferentziako zentroa. Bertan hainbat ekintza egiten dituzte: egokitutako kirola, autodeterminazioa, parte-hartze

aktiboa, ikastaroak, zein landa eremuan ekitzak eta, besteak beste, hezkuntza ikastaroak. Gainera, garuneko-paralisia dutenen familientzako eta elkarteetako profesionalentzako ere ekintzak eta jardunaldiak antolatuko dituzte. Hain zuzen ere, irekiera ekitaldia Garuneko-paralisia dutenentzako elikagaien prozesua jardunaldiaren baitan egin zen, eta bertan hainbat erkidegoetatik hurbildutako kideek parte hartu zuten.

ATERPETXE TURISTIKOAK

Nafarroako Aspacek 2003an hartu zuen Baztango Gazteen Aterpetxearen gestioa eramatearen ardura. Bertan 20 kidek lan egiten dute, ia %90a ezgaitasunen bat duten bailarako pertsonak direlarik. Aterpetxeak dituen eremuetan 130 kide har ditzazke. Eraikin osoa pertsona ezgaituek erabili dezaten moldatuta dago.

FLASH

Lisboako fadoak kontzertuan

Ilda Gabriel eta bere taldeak *Fados de Lisboa* kontzertua eskainiko dute martxoaren 11n, igandean, 19:00etan Arizkunenean. Sarrera doan izanen da, lekua bete arte.

Bailableak igandean

Baztango dantzariak eta Elizondoko Gaitariak bailableak eskainiko dituzte hilaren 11n, igandean, 12:45ean Elizondoko plazan (euria eginen balu, Braulio Iriarte frontoian).

Bertako produktuen merkatua

Baztango artisauen eta Baztango Zaporeak elkartearen eskutik bertako produktuen merkatua eginen dute martxoaren 17an Elizondoko plazan, larunbatean, 10:00etatik 14:00etara.

'Hozkailua' antzezlan Iruritan

Artedrama antzerki taldearen *Hozkailua* helduendako antzezlan ikusgai izanen da martxoaren 18an, igandean, 19:00etan Irurita Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Ander Lipus eta Patricia Urrutia dira antzezlan horretako aktoreak. Sarrera doan izanen da, lekua bete arte.

Sartu
gure web berrian
WWW.SILOTITE.COM



www.silotite.com

Silo bolak egiteko plastiko berriak

Bazkak nutriente gehiagorekin izateko

- Edozein belar klasetan erabilgarria
- Aukeran 500 mm eta 750 mmtan
- Zultatzeo gogorra eta tiramenduetarako sendoa
- Elastikotasun ezin hobea
- Memoria elastiko bikaina
- Ongi itsekitzen dena
- Baldintza atmosferiko guztietan erresistentzia onekoa eta UV egonkortasun handikoa
- Ingurumenarekin erasokorra ez den plastikoa



SILOTITE
by formipac



Silotite®. Segurtasunaren aukera

AROZ-BERRI, S.A.

irurita@arozberri.com - Pol. Zaldubia NA-8307, km 0,8 - 31730 IRURITA (Nafarroa)
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - Faxe 948 452 103 - www.arozberri.com

BAZTAN-BIDASOALDEA

GIZARTEA → BAZTANGO UDALAK ZEIN BORTZIRIAK ETA MALERREKAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEAK

Turismo arloan abiatu dute Jasangarritasunaren Sarea

Eskualdeko birziklapen tasak hobetu asmoz eta inguru jasangarriago bat lortzeko egin ahaletan

TTIPI-TTAPA

Eskualde jasangarriago baterako bidean Jasangarritasunaren Sarea sortu dute Baztango Udalak eta Bortziariak eta Malerrekako Mankomunitateak. Etorkizun batean sektore guztietako talde eta erakundeei sarean sartzeko aukera eskaintzea da asmoa, baina momentuz turismoak, gure eskualdeko hondakinen sorreran duen pisua ikusita, sektore honen abiatzeko erabakia hartu dute.

Egunotan, interesa agertu duten lehendabiziko 21 establezimendu turistikoehi beharrezko materiala banatuta egitasmoak bere ibilbide publikoa hasiko du.

Egitasmoak, ordea, lehenagotik hasia zuen martxa. laz eskualdeko establezimendu turistiko guztiei ideiarenguruko inkesta bat bidali zitzaion. Bertan, egitasmoaren berri emateaz gain, parte hartzeko interesa eta honetarako jarriko litzuketen baldintzen berri galdetu zitzaion. Jasotako erantzunekin eraiki zen gainerakoa.

Sarean sartu ahal izateko establezimendu-



ristikoetako jabeek hainbat konpromiso hartzen dituen eta, era berean, zenbait eskubide ematen dizkien agiria sinatu behar dute. Bertzen artean hondakinak sailkatzeko ontziak jarri behar dituzte beren establezimenduetan eta bezeroak eskualdeko hondakinen kudeaketaren inguruan informatu behar dituzte. Gai organikoa ere kudeatu behar dute. Trukean, hondakinak gaika sailkatze-ko ontziak eta konpostagailuak emanen dizkiete, baita bezeroei informazioa helarazteko foileto eta kartelak ere.

Establezimenduek jasangarritasunaren alde hartutako konpromisoa berresten duen eta beren promoziorako erabiltzen ahaliko duten logo-marka eta diploma eskuratuko dituzte eta ordaintzen duten hondakin-tasan hobaria izanen dute.

Baztango Udalak eta Bortziariak eta Malerre-



Parte hartzen duten establezimendutan banatuko den materiala eta zigitua.

kako Mankomunitateek bereziki eskertu nahi dituzte ekimena martxan jartzea ahalbidetu duten eta horretarako lehen urrats honetan izena eman duten establezimendu turistikoak:

Baztanen: Amaiurko Jaimeneko Borda eta Enekoneko Borda, Anizko Jauregia, Arizkongo Gontxea, Arraiozko Serorenea, Berrotako Peregarenea, Elbeteko posada, Erra-

tzuko Barazabal eta Kordoa, Lekarozko Mikelenea, Zigako Gamio-koborda, Elizondoko Urruxka, Larraldea eta Markullukoborda eta Itzalargikoborda Hostal- la.

Bortziarietan: Berako Iratxekoberea eta Etxalarko Gainkoborda, Peruarnea eta Perugorria berria landetxeak.

Malerrekan: Donamari-ko benta eta Iturengo Abaraun aterpetxea.

ARRANTZA

Apirilaren 15ean irekiko dute izokin denboraldia

TTIPI-TTAPA

2018 denboraldian arrantzarako baldintzak arautzen dituen Foru Agindua onartu du Nafarroako Gobernuak. Amuarrain arrantzarako iaz baino baimen gehiago emanen dituzte (17.271 aurten eta 15.609 iaz). Horrekin batera, aurten izokin denboraldia lehen- txego hasiko da eta izokin arrantzarako, lizentziak gain, eguneko baimen berezia ere beharko da.

Maiatzaren 1etik ekainaren 30era irekiko da amuarrain arrantza denboraldia. Azken bi denboraldietan bezala, eguneko bi amuarrain baino gehiago ezin izanen ditu hartu arrantzale bakoitzak. Ibai nagusietan nahiz erreka ttikiagoetan guttienez 23 zentimetroko aleak atera daitezke. Ezkurra errekan, Elgorriaga parean, arrantzatu eta aske uzteko eremu bat izanen da.

Izokin arrantzan lehenagotik hasteko aukera izanen da aurten, apirilaren 15ean, eta, amuarrainarekin bezala, baimen sistema berezia izanen dute aurten izokin-arrantzaleek. Maiatzaren 28tik ekainaren 13ra arrantzarako debekua ezarriko da. Orain arte, izokin-arrantzaleek ezin izan zuten denboraldiko hiru ale baino gehiago arrantza- tu eta aurten kendu egin dute muga hori.

GIZARTEA → MARTXOAREN 17AN, GOIZEKO BEDERATZIETAN HASITA

Akelarreneako biltegia txukuntzeko malobra deialdia egin du Akelarrek

Lana goiz berean finitzen ahal dela uste dute eta lanean ariturikoei bazkaria eskainiko die elkarteak

Josebiñe eta Koro

Akelarreneako biltegia txukuntzeko, malobra (auzolan) deialdi bat egin du Akelarre elkarteak: martxoaren 17an (larunbatean 09:00etan hasteko).

Urteak pasatu ahal, gero eta gauza gehiago pilatzen joan dira toki honetan, erabiltzen ez direnak. Batez ere garai batean egiten zen gaupasako materialak daude. Horrez gain, zurezkoak diren apalategiak egoera txarrean daude, pipiak jota.

Hori guztia sailkatu,



ARGAZKIA: JOSEBINE

Arbola loratua kanposantuan

Oraindik natura lo den sasoi honetan, harrizkoa izan da arbol loratu hau ikustea, non eta kanposantuan!

antolatu, konpondu, txukundu eta garbitu egin behar da.

Lan egitera etorriko den jende kopurua polita izanzen delakoan,



ARGAZKIA: JOSEBINE

Pottoka bide berria

Karrika honetan kotxeak goiti-beheiti ikustera jarriak gara, ez, ordea, lehengo egunean ikusi genituen pottokak...

goiz berean lana finitzen ahal dela uste dute, eta ondotik, lanean aritu di-

renei bazkari bat eskainiko die Akelarre elkarteak.

MARTXOAREN 10EAN

Beintza eta Saldias lotuko ditu aurten Lan Gauda Kontrabandisten Ibilaldiak

TTIPI-TTAPA

Etxalar, Oiartzun, Erratzu, Arantza eta Hondarribian egin ondotik, aurten Beintza-Labaien eta Saldias lotuko ditu Lan Gauda, Bidasoko Kontrabandistak (KB) elkartearen ekimenak, martxoaren 10ean.

Gaueko ibilaldi gidaturako, larunbatean 19:30ean elkartuko dira Beintzako aterpetxean eta 20:00etan abiatuko da ibilaldia: Beintza-Labaien-Pagoeta-Saldias-Aieleta-Beintza (10,950 km).

Izen-ematea Baztan-Bidasoa Turismoan egin daiteke martxoaren 8ra arte (info@baztan-bidasoa.com edo 948 592323), 7 euro ordainduta.

Lan Gauda Bidasoko Kontrabandistak (KB) proiektuaren egitasmoa da, urtero gaueko ibilaldi baten bidez kontrabandista ohien testigantza eta bizipenak jasotzea du helburu. Aurtengoan Saldiasko Periko Urrutia *Koxkorro*-ren testigantza jasoko dute Argiñenea bere etxe atarian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Periko Urrutia erdian, Xanti Elizagoien eta Mikel Albisuren artean.

URDAZUBI

GIZARTEA → OTSAILEKO AZKEN OTZIRALEKO BILKURAN

Uraren aprobetxamendua handitzeko eskaria onartu du Udalak

Moldaketa lanek 1.747.042,74 euroko gastua izanen dute

Iñigo IMAZ

Otsaileko azken ortziraleko udal batzarrean erabaki bezala, Kantaurialdeko Ur Konfederazioari Otsondoko iturriko uren aprobetxamenduan aldaketa egitea eskatuko zaio.

Proposamena Udala Gobernuak mahairatu zuen, eta Azkar taldeko lau zinegotzien aldeko bozka eta Urdazubi Elgarrekin taldearen abstentzioari esker aterazen aitzinerat. Ondorioz, 2013tik Urdazubik



UTZITAKO ARGAZKIA

H2O proiektuaren harira, Gipuzkoa, Nafarroa eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, Pirinio Atlantikoetako departamentuko eta Urdazubiko Udaleko kideekin, bildu ziren.

Otsondon segunduko ustiatzen dituen 5,19 litroak zazpi litro izatera pasatuko lirake. Ur kopuru hori, Santiago Villaresen ahotan, «ezinbertzekoa da Ainhoaren ur-hornidura ziurtatzeko».

Gaur egun, eta Europako muga arteko proiektuen diru-lagun-

tzei esker, Urdazubi herriko ur-hornidura zaharberritzen hasia da, eta horretarako, Ainhoaren parte-hartzea ezinbertzekoa zitaion Nafarroako herriari. Otsondoko urak mugaz bertze aldera pasatzeko Konfederazioaren baimena behar du. Hori guztia Gipuzkoa, Nafar-

roa eta Lapurdiko mugako guneak biltzen dituen H2O Gurea proiektuaren baitan garatuko da, eta horrekin, Xaretako herriek aldaketa klimatikoak sortu ahal dituen lehortei aurre egiteko aukera lortuko lukete.

Obra horietan eginen diren moldaketa lanen

kostua, guztira, 1.747.042,74 eurokoa da, eta horretarako, Europa eta Nafarroko diru-laguntzez gain, Urdazubik mailegu bat ere eskatu beharko du.

Edonola ere, obraren zati handi bat herriak berak ordaintzeko asmoa du, 2017tik eta 2019ra bitartean.

UDALAK

Baztarretzeko bentako Labaien-Maskotena familiari arrazoia eman dio bai Nafarroako Auzitegiak bai eta Gobernuak ere

Iñigo IMAZ

Aspaldiko kontua izanagatik, pisu handia duen bertze gai bat ere jorratu zuten herriko zinegotziek otsaileko batzarrean: Labaien-Maskotena familiako kontua. Izan ere, Nafarroako Auzitegiak gatazkari amaiera eman dionez, Urdazubiko Udalak ezin izanen du azken epaiaren inguruko errekurtsorik jarri. Horrela bada, Urdazubiko Udala gastu judizialak ordaintzera kondenatua izan da.

Historia luzea du gatazkak. Baztarretzeko bentako nagusiak diren Joxe Miguel eta Maria Josefa Labaien Maskotena Dantxarinean kokaturik dagoen lursail baten jabeak dira. Udalak lur horiek urbanizatu egin zituen, auzoko bertze anitz egin zituen modu bertsuan. Hori horrela, Udalak balorazio ekonomiko ge-

hiegizko bat eman zien, kontribuzioa balorazio katastral horren arabera egin zuelarik.

Labaiendarrek 2009an Udalari errekurtsioa aurkeztu zioten, baina ez zitzaien onartu. Ondorioz, Nafarroako Gobernuak 4.091.353,55 euroko balorazioa ezarri zuen 2015ean. Ondotik, Foru Ogasunak labaiendarren errekurtsioa ontzat jo zuen eta beraien argudioei kasu eginez, azkenik 1.841.055,43 euroko balorazioa ezarri zuen 2016an.

Urdazubiko Udaleko aginte makila duen Azkar taldeak epaitegietara eraman zuen kontua, Nafarroako Gobernuari eta Labaien-Maskotena familiaren aurka eginez. 2017ko irailean epaileak arrazoia eman zion Nafarroako Gobernuari eta Dantxarineko lursailaren balorazio katas-

trala egokitatzat eman zuen.

Oposizioko Urdazubi Elgarrekin taldeak epaiari men egin eta herritarren dirua holako auzietan alperrik ez gastatzeko eskatu zion Santiago Villares alkateari. Baina Azkar taldeak, Alfredo Irujo abokatuaren aldeko txostenik gabe, epaitegian bertze errekurtsio bat aurkeztea erabaki zuen.

Orain, 2018ko ekaineko sententziak errekurtsioen bidea hetsi du. Horren ondorioz, Udalak epaiketako berezko gastuez gainera, Nafarroako Gobernuaren zein labaiendarren gastuak ordaindu beharko ditu. Gastu horiek, gutti goiti-beheiti, 10.000 euro suposatzen dituzte.

Are gehiago, Baztarretxeko Bentako nagusiei orain arte bidegabeki kobratu-riko diru guztia ere itzuli beharko die.

GIZARTEA → OLHAIN IKASTOLA

40. urteurrenaren kariatara hainbat ekitaldi antolatu ditu ikastolak

Hilaren 23an komunikazio ez bortitzari buruz gaurdia antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Aurtengoa urte berezia izanen da Olhain Ikastolarentzat. 40 urte beteko ditu, eta urteurren horren kariatara, hainbat ekitaldi aurreikusi dituzte ekainera bitarte. Horien artean, ikastolako Euskaraz Bizi taldeak komunikazio ez bortitzaren inguruko gaurdia antolatu du martxoaren 23rako.

19:00etan, Lurberri Gelan, Arberoako Ikastolako hezkuntza taldeak haien ikastolan lantzen ari diren pedagogia azalduko du, eta horretarako egin duten dokumentala ikusteko aukera izanen da. Proiekzioaren on-

dotik, eztabaidatzeko aukera izanen da. Finitzeko, jatekoa eta edatekoa eskainiko dute. Gaurdi horretan berean, dokumentalaren DVDak salgai paratuko dituzte.

Bertzalde, laster, argazki erakusketa antolatuko dute, eta apirilaren 7an, Zazpiak Bat dantza taldearekin, Korrontzi dantzan ikusgarria antolatu dute. Maiatzaren 20an ikastolaren besta ospatuko dute eta ekainean haurren eguna egin nahi dute.

Pastiza salmentak

Eskola publikoak antolatuta, pastizak salduko dituzte martxoaren 11n plazan, 09:00etatik 13:00etara.

Martxoaren 24an eta 25ean, Saint Joseph eskolakoak ariko dira plazan pastizak saltzen, 11:00etatik 13:00etara.



UTZITAKO ARGAZKIA

Tripotxak umore onean

Otsailaren 10ean 130 bat erretretatu bildu ziren Lurberri Gelan, Sarako herriak eskainitako bazkarirat. Herriko harategiak prestatu zuen apairua eta umore ederrean pasatu zuten arratsaldea. Aipatzekoa da, bertzalde, Beti Gazte Elkartearen biltzar nagusia apirilaren 14an eginen dutela Lurberri gelan.



ARGAZKIAK: LEIRE FAGOAGA ETA PANTXIKA PATERNE

Denbora kaskarra baina giro ederra

Denborak sobera lagundu ez bazuen ere, eguraldia ez zen oztopo izan inauteriak giro ederrean ospatzeko. Larunbatarekin, 35 bat gazte ibili ziren etxetik etxera musika-riekin. Biharamunean, zanpantzarren auzia eginez borobildu zituzten inauteriak.

SARAKO OIHUAK

Herriko kontuak biltzeko elkarteak sortu dute

2018ko urtarrilaren 1az geroztik, Sarako Turismo Bulegoa Herri Elkargoaren bulegoari lotua da. Hala, ez da gehiago herriko ekitaldien promozioa egi-teaz eta hedatzeaz arduratuko.

Horrekin lotuta, Sarako Oihuak izeneko elkarteak sortua izan da, lehenik, herriko kontuak eta ekitaldien berri biltzeko, eta ondotik, herritar guztiei za-

biltzeko. Baina horretarako, ekitaldien xehetasun guztiak beraiei bidaltzeko eskatu dute Sarako Oihuak elkartetik: sarako.oihuak@gmail.com helbidera edo 07 67 27 68 07ra idatziz. Gero, beraiek arduratuko dira bildutako informazioa saratarrei eta Herri Elkargoaren bulegoari hedatzeaz. Hala, publiko zabalagoa hunkitua izanen da.



SENPERE

KULTURA → OTSAILAREN 23AN

Senperen Kantuz eta Azkaineko Marintxok urteko bilkura egin dute

Bertako en gainerat, Urkoi, Bidarte edo Getariko batzuk bildu dira

Pierre BASTRES

Aspaldiko usaiari segituz, aurrean ere Azkaine eta Senpere arteko mugan dagoen Pyrénées Atlantiques ostaturan bildu dira Martintxokoak, Senperen Kantuzkoak eta bertze kantu maitale zonbeit. Otsailaren 23an egin zuten hitzordua eta musikarienguz inguruan jende andana bat zen bildua, giro ederrean.

Bertako en gainerat, Urkoi, Bidarte edo Getariko batzuk ere atsemaiten ahal ziren. Martine urkoitarak, eskuara ez jakinagatik ere, azpimaratu zuen «holakoetan enegaztetasunaz oroitarazten naiz eta hortakoz hain gustokoa baitu! Bertalde, bere musikariak baditu Martintxok,



ARGAZKIA: PIERRE BASTRES

Azkaine eta Senpereko kantariekin batera, auzo herrietakoak ere bildu ziren.

eta gitarra eta bibolina bitartez giroa arras erakargarria zait, *a capela* maite badut ere kantzeta. Maite bidartarrak kantu egunak edo arratsak ez ditu sekulan huts egiten, izan dadin Azkaineko Martintxon, Hondarribiko Kalean Kantuz edo bertze, kantuaz maitemindua baita, baina gainera, «betiz geroztik eskuaraz mintzatzen dut, hala ere baliatzen ez ditugun edo ahantzi ditugun hitzak ikasi edo berri ikasten ditut kantuari esker!».

Oroitaraz dezagun Martintxok hilabetean behin kantu arratsa antolatzen du Azkainen. Xehetasunak: <http://www.martintxo.net/>.

LAPURDI 1609 ELKARTEAREN EKIMENA

Euskal prentsa irakurgai da herriko ostatu eta tabernetan

Herriko ostatu eta tabernetan aisa kausitzen ahal dira erdarazko egunkari eta aldizkariak, baina ez da nehon ikusten euskarazko prentsarik. Egoera horrekin kezkatuta, Lapurdi 1609 elkarteak proposatu die urte oso batez euskarazko hedabide bat hartzea, «jendeak euskarazko prentsa ere irakurri ahal izateko». Berehala hiru ostaturak baietz erran dute eta urtariletik errezibitzen hasiak dira Berria egunkaria, Herria astekaria eta Ttipi-Ttapa hamabostekaria.

APIRILAREN 14AN

Bigarren Hiru'Kantuz antolatuko dute

P. BASTRES

Lehenbiziko Hiru'Kantuz 2016ko apirilaren 2an Tarrapatan elkarteak muntatu zuen, eta karia hortarat, Iparraldeko hiru probintzietako 300 euskal kantuzale elkartu ziren, kantatzeko eta bazkari on bat partekatzeko.

Antolatzaileen xedea hau da: urte guziz kantu bazkari hau egitea, baina aldiro probintzia ezberdinean. Ondikoz ez da hala gertatu, eta berri leku berean ospatuko dute bigarren emanaldia: Ibarrungo Inharria baserrian.

Azkaineko aldian, autobus bat jina zen Xiberotik. Baigorri eta Garazi aldetik ere jenderik ez zen eskas. Noski, jende guziera idekia zaiote, eta agian, hortaratuko dire hegoaldeko kantariak ere, batez ere baztandar eta bertze nafar auzoak.

Bixente Fagoaga antolatzaile batek adierazi du egonaldi huren helburua: «Iparraldeko hiru probintzien kantu zonbeiten partekatze, eta elgar ezagutzeko parada izan daiteke! Partzuer bakoitzak kantuen liburutto eder bat izan du. 2016koaz jendea xoratua zen, eta aintzek besta orotar ekarki dute!».

Prezioa 30 eurokoa da, liburu zintzur bustitzea, bazkaria, eta kopa barne. Erreserbatzeko deitu 06 83 82 98 34 zenbakiratz.

tanatorios
IRACHE

24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK


MARTIKO
Martiko
Pol Zalain, s/n.
31780 Bera. Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Ahatekistan adituak eta arituak

DENDA ORDUTEGIA:
astelehenetik
ortziralera
08:00etatik
17:00etara

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

 ttipi-ttapa

Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Urte osoan 24 orduko zerbitzua

Beilatoki zerbitzua Bortzirietan
baita eskualdeko etxeetan ere

T. 948 05 90 90

HERIOTZAK

Julio Etxaide Rodenas, Elizondokoa, otsailaren 15ean, 80 urte.

Juan Tomas Maia Joankorena, Lesakakoa, otsailaren 16an, 84 urte.

Gregorio Miguel Mindegia Lopez, Doneztebekoa, otsailaren 18an, 84 urte.

Fermin Mitxeo Legarreta, Oizkoa, otsailaren 18an.

Bernard André Louis Survile, Sarakoa, otsailaren 14an, 73 urte.

Jose Otxoteko Errazkin, Berakoa, otsailaren 19an, 84 urte.

Damaso Rozas Beola, Berakoa, otsailaren 20an, 91 urte.

Mercedes Etxarte Irazoki, Igantzikoa, otsailaren 21ean, 82 urte.

Maria Victoria Ibarra Agesta, Sunbillakoa, otsailaren 22an, 91 urte.

Lorentxo Iturria Arotzena, Goizuetakoa, otsailaren 22an, 90 urte.

Pedro Narbarte Petrikorena, Aranoakoa, otsailaren 24an, 90 urte.

Jose Antonio Agirre Zubieta, Berakoa, otsailaren 24an, 63 urte.

Maria Iribarren Aleman, Lekarozkoa, otsailaren 26an, 90 urte.

Paulina Orriaga Jauntsaras, Iruritaakoa, otsailaren 27an, 91 urte.

Maria Petra Nemours Ezponda, Arizkungoa, otsailaren 27an, 89 urte.

EZKONTZAK

Iñigo Almandoz Alzugarai eta **Olatz Retegi Etxeberria**, Igantzikoak, otsailaren 18a Igantzin.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Izaro Pikabea Sansifiena, Lesakakoa, otsailaren 17an.

Ioritz Telletxea Pikabea, Igantzikoa, otsailaren 18an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



Bittori IBARRA AGESTA

Sunbillan hil zen, 2018ko otsailaren 22an, 91 urte zituela

Zer da, ba, heriotza? zortzi hizki lodi, tokatuko zaiguna, gizaki orori,... zu ere eraman zaitu, maitasunez jori, Gero arte, muxu bat, gozatu Bittori, zeruan irabazi, duzun toki hori!

ZURE FAMILIA

Eskerrak eman momentu gogor hauetan lagundu diguten guztiei eta bereziki Karmenxuri eta Malerrekako Mankomunitateko etxez etxeko langile eta arduradunei.

ESKELAK eta HILBERRIAK

aldi-eguneratuak

erran.eus
webgunean



PILOTA → SUNBILLAN ETA DONEZTEBEN OTSAILAREN 24AN

Malerrekako eskuz binakako XVI. txapelketaren finalak jokatu dituzte

Errekako Salaberria eta Mariezkurrena nagusitu dira elite mailan

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 24an jokatu zituzten Sunbillan eta Donezteben Erreka elkarteak hamaseigarren aldiz antolatutako eskuz binakako pilota txapelketaren finalak. Elite mailan, Errekako Iker Salaberria goizuetarra eta Mariezkurrena II.a gailendu ziren. Zazpi kategoriatan banatutako 188 bikote aritu dira txapelketan.

Ttikienak Sunbillan aritu ziren eta lau kategoria nagusietakoak Do-



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Malerrekako pilota txapelketako finalistak, antolatzailak eta laguntzaileak.

neztebeko frontoian jokatu zituzten finalak.

• **Benjaminak:** Arretxe eta Iturralde (Ilunpe), 8 - Gaztañaga eta Berroz (Andoain), 18.

• **Alebinak:** Etxeberria (Eple) eta Ibarluzea

(Urretxu), 18 - Otaegi eta Zarrabeitia (Txapagain), 12.

• **Infantilak:** Illarregi eta Mikelarena (Erreka), 2 - Amiano eta Orbegozo (Añorga), 18.

• **Kadeteak:** Peso

eta Petite II.a (Barberito I), 7 - De la Fuente eta Ibañez (Esteribar), 18.

• **Jubenilak:** Aizkorbe eta Apezetxea (Umorre Ona), 18 - Garcia eta Minguez (Najerino), 6.

• **Bigarren mailako**

seniorrak: Artola eta Irazustabarrena (Intxurre), 22 - Telletxea (Erreka) eta Gaskue (Buzurgain), 21.

• **Senior elite:** Arrieta (Hernani) eta Gorriti (Erreka), 14 - Salaberria eta Mariezkurrena II.a (Erreka), 22.

Otsailaren 23an, berriro, Errekako buruz buruko txapelketako finalak jokatu zituzten. Patxi Loiarde, Mikel Mikelarena, Mikel Izagirre, Endika Santesteban, Mikel Telletxea, Mattin Agesta, Iker Anzizar, Amets Jauregi, Jokin Mariezkurrena eta Ibai Maritxalar suertatu ziren txapeladun, kadetetatik hasi eta aurrebenjaminarteko kategorietan.

HERRI-KIROLA → EUSKADIKO SOKATIRA TXAPELKETA

Urrezko bi domina eta zilarrezkoarekin borobildu du txapelketa Beti Gaztek

640 eta 600 kilotan txapeladun eta 560koan txapeladunorde izan da

TTIPI-TTAPA

Beti Gazteko mutilen sokatira taldeak zilarrezko domina eskuratu zuen otsailaren

24an Laukizen (Bizkaia) jokaturako 560 kiloko kategoriako txapelketaren finalean. Lesakarrak bigarren izan ziren, tiraldi guztiak irabazi zituen etxeko Gaztedi taldearen gibeletik eta Sokarriren aitzinetik.

Hain zuzen, borroka handia izan zuten lesakarrak Sokarriekin bigarren postua eskuratzeko. Tiraldi bana irabazita, kitarakoan nagusi-

tu zen Beti Gazte. Ibarra laugarren izan zen, Berriozar, bosgarren, Murueta seigarren eta Txantrea zazpigarren.

Gisa honetara, Beti Gazte txapela jantzi du 640 eta 600 kiloko txapelketetan eta meritu handiko zilarrezko domina lortu du 560ko kategorian.

Karmelo Mitxelena, Jose Angel Mitxelena, Mikel Apeztegia, Unai



UTZITAKO ARGAZKIAK

Beti Gazte txapeladun 600 kilokoan eta lehian 560koan.

Gurrutxaga, Beñardo Iantzi, Alejo Sarobe, Iñigo Alzugarai, Eneko Saldias, Gerardo Telletxea eta Beñat Ordoki aritu dira hainbat kategoriatan.

Emaizta hauekin egunotan Txinan jokatu den Munduko txapelketan parte hartzeko eskubidea bazuen Beti Gazte, baina diru kontuengatik ez da joanen.

LASTERKETAK → URTEKO BALANTZEA

85 lasterketetan parte hartu zuen iaz Manttalek

Zortzi garaipen lortu zituen, Unai Santamaria, Asier Apezetxea eta Jone Zelaietaren bitartez

TTIPI-TTAPA

2017. urtean Manttale Mendi Lasterketa Taldeak 85 lasterketetan parte hartu zuen: 54 mendi lasterketa eta 31

errepidean. Eta bere hamabigarren urtean, zortzi garaipen lortu ditu.

Azken urteetan bezala, Unai Santamaria izan zen taldeko kirolari aipagarrienetako bat. Nafarroa Extrem bigarrenez irabazi zuen, baina oraingoan 32 kilometrotakoan, Garaipen honetaz gain, Ttuturru Trail eta Artega Mendi Lasterketak irabazi zituen. Hirugarren sailkatu zen Euskal Herria Mendi Erronkan eta Asier Apezetxearekin batera Lesakako Bikin Batin Nafarroa Oinezaren



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Manttaleko korrikalariak Berako Mendi Maratoi Erdia abiatu baino lehen.

ren duatloia irabazi zuten.

Asier Apezetxeak ere denboraldi borobila egin zuen bi garaipen lortuz (Kintoa Kurri eta Ezpeletako gau lasterketa) eta bigarren izan zen Zestoako Kobaz Koba Trailean, Bidarrain eta Oleta-Yasolan. Garaipena lortu zuen bestetako bat Gwendal Larqué izan zen, hain zu-

zen ere Hiriburuko Course du Muguet lasterketan.

Jone Zelaietak Kintoa Kurri eta Sarako Kontrabandisten lasterketak irabazi zituen eta bigarren izan zen Senpereko Ibar Run Trailean eta hirugarren Kobaz Koba Trailean.

Txus Unsionek ultratrailetan maila ona eman zuen eta lehenbi-

ziko aldiz egin zen Basque Ultratrail Series zirkuitoa ia osotasunean egin zuen. Master kategorian bigarren sailkatu zen Bilbo-Gasteiz, Gasteiz-Iruñea eta Iruñea-Donostia lasterketetan. Azken proba (Donostia-Bilbo) bertan behar izan zuen, baina sailkapen orokorrean 34. bukatu zuen.

LASTERKETAK → MARTXOAREN 10EAN ETA 11N

Senpereko Trail lasterketaren inguruan bertze bi egingen dituzte

SPUC-en 10. urteurrenean Gotorlekuen Itzulia egingen dute lehen aldiz

TTIPI-TTAPA

Senpereko Trail lasterketaren zazpigarren edizioa antolatu du

SPUC Lasterkak martxoaren 11n. Igandean 08:00etan abiatuta, 21,5 kilometro luze eta 1.050 metroko desnibela duen proba egin beharko dute korrikalariak.

Aitzinetik, larunbatean, martxoak 10, 16:30ean abiatuko da Ibar Run Trail lasterketaren hirugarren edizioa. 9,8 kilometro luze eta 330 metroko desnibela

duen korrikaldia izanenda.

SPUC lasterka klubaren hamar urteak behar bezala ospatzeko, kirola eta laguntasuna uztartzen dituen lasterketa berri bat sortu dute: Gotorlekuen Itzulia. Horrexegatik, izen-ematearekin batera, lasterketaren parte-hartzea eta horren ondoko afaria ukanen dituzte par-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

VII. Senpereko Trail igandean egingen dute.

te-hartzailleek. Martxoaren 10ean, 09:00etan abiatuko da 42 kilometro luze eta 2.800 metroko desnibela izan den lasterketa. Ibar Run Trail plaza-tik abiatu eta Larruneko gotorlekuetatik

iraganen da.

Aipatzekoa da igandeko lasterketa ikusi nahi dutenentzat 10 eta 16 kilometrako oinezko ibilaldiak antolatu dituztela, 08:30ean abiatuta (izen-ematea 07:00etan hasita, 5 eurotan).

martxoak 8 - 22

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Solosaldiak



BERA | 2018.03.09

Kike Amonarrizekin hitzaldia antolatu dute Beran

Bortziriak euskaldunak nahi dituzu? Eginen dugu? Gai horri tiraka, eta Kike Amonarriz hizlari dela, solosaldia egingen dute martxoaren 9an Beralandetan, 19:00etan.

Antzerkiak



IRURITA | 2018.03.18

'Hozkailuak' helduendako antzerkia Iruritako Gizarte Bilgunean

Obrak Maite eta Karlos pertsonaien istorioa kontatzen du. Herriz herri dabilta hozkailu zahar batekin, horren barrenean, Londres-tik dakarten lagun baten hilotza daramatela». Antzerkia 19:00etan hasiko da.

Ospakizunak



ESKUALDEA | 2018.03.08

Emakumearen Egunaren harira, aldarrikapena eta besta

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna da eta egun horren bueltan, hainbat ekitaldi antolatu dituzte eskualdeko osoan. Aurtin, gainera, emakumeen greba deitua du Euskal Herriko mugimendu feministak.

Solosaldiak

BERA

Kike Amonarrizen hitzaldia

Martxoaren 9an 19:00etan Beralandetan.

ZIGA

Jakoba Errekondo

Martxoaren 10ean 12:30ean. Haziaren Egunaren baitan.

LEITZA

Kontsumoak ba al du generorik?

Martxoaren 15ean 19:00etan Udaletxeko Batzar Aretoan.

ELIZONDO

Inguruaren pozoiketa eta pertsonen minbizia hizpide

Martxoaren 22an 19:30ean Arizkunenean.

Tailerrak

BAZTAN

'Bizi zahartzaro aktiboa'

Martxoaren 5ean, 12an, 19an eta 26an Arizkungo Medikuen Etxean, 16:30etik 18:30era. Izen-ematea: Arizkun edo Erratzuko kontsultategietan edo 659 849570ra deituta.

Martxoaren 15, 22 eta 29an eta apirilaren 6an Elizondon, Arizkunenean, 16:30etik 18:30era. Izen-ematea: Osa-

sun Zentroan, jubilotokian edo 659 849570ra deituz.

Antzerkiak

BERA

'Bizimiñak' antzezlan

Martxoaren 18an 18:00etan Kultur Etxean.

DONEZTEBE

Firin Farandula antzerki taldea

Martxoaren 18an 18:30ean Zinema.

IRURITA

'Hozkailua' helduendako

Martxoaren 18an 19:00etan Gizarte Bilgunean.

Ipuin-kontalariak

ANIZ

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira

Martxoaren 15ean 17:30ean 4-10 urtekoendako.

ERRATZU

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira

Martxoaren 23an 17:30ean 4-10 urtekoendako.

BERA

Estibxu Mentaberrirekin

Martxoaren 23an 18:00etan Herri Liburutegian, 4 urtetik goitikoentzat.

Jardunaldiak

GOIZUETA

Goizuetan lan eta bizi: emakume ekoizleak

Martxoaren 10ean 18:00etan Udaletxeko Batzar Aretoan.

Ospakizunak

ESKUALDEA

Emakumearen Nazioarteko Eguna

Martxoaren 8an.

ARANTZA

III. Trikitixa Jaialdia

Martxoaren 10ean 16:30ean frontoian. Sarrera 5 euro, 12 urtetik beheitikoek dohainik.

PROPOSAMENA

SENPERE

Mendian oinez eta lasterketa gozatzeko

Mendian oinez edo lasterka ibili nahi dutenentzat asteburu ederra antolatu du Senpereko Spuc lasterka taldeak bere hamargarren urteurrenaren harira. **Martxoaren 10ean** Gotorlekuen itzulia (42 KM eta 2.800 metroko malda) eta **Ibar Run Trail** (9,8 KM eta 330 metroko malda) lasterketak eta **martxoaren 11n** Senpereko Trail (21 KM eta 1.050 metroko malda) lasterketa. Bi mendi itzuli ere egingen dituzte.



ARGAZKIA: J. HARISPE.

ZIGA

Haziaren Eguna

Martxoaren 10ean 11:30etik aitzinera hazien trukea.

Kontzertuak

BERA

Altsasuko gazteen alde

Martxoaren 10ean 22:00etan Inoren ero ni eta Tororo DJa Katakun.

DONEZTEBE

Mendi abesbatzaren saioa

Martxoaren 10ean 18:30ean.

BERA

Mugaldekoak Kultur Etxean

Martxoaren 17an 20:00etan.

ELIZONDO

Fado kontzertua Arizkunenean

Martxoaren 11n Ilda Gabriel eta bere taldea 19:00etan.

Gatibu eta Trikidantz

Martxoaren 24an 23:30etik aitzinera Lur aretoan.

Dantzak

ELIZONDO

Bailableak plazan

Martxoaren 11n 12:45ean.

Bertsokak

ERRATZU

Bardoak

Martxoaren 9an Zubipuntan, 21:00etan Addams familia eta Topa bardo topa taldeak.

LEITZA

Bardoak

Martxoaren 9an Gaztetxean, 22:00etan, Aldatzea komeni eta Ibardin: hiru ta lau dira zazpi taldeak.

LESAKA

Bardoak

Martxoaren 11n Arrano elkartearen (17:30) Unibertsolariak eta Bi dozena taldeak.

DONEZTEBE

'Bakean dagoena bakean utzi'

Martxoaren 11n 19:00etan zinemaren.

Nire aukera



Harkaitz Delgado
Leitzako liburuzaina

«*Tamalez, bukatu gabeko liburuak irakurritakoak baino gehiago dira*»

Leitzako liburutegiak, azarotik urtarrilerako itxieraren ondotik, urtarrilaren 11n ireki zituen ateak. Irekiera data «dezen-te» luzatu zen. Izan ere, Leitzako Udalak, herri euskalduna izaki, zerbitzua «euskaraz» eman behar litzaiekela iritzi zuen, eta beraz, «dekretu bat onartu» beharra zegoen. Horrek zekartzan gorabeherak gaindituta, zerbitzua martxan da dagoeneko, Harkaitz Delgado liburuzainaren eskutik. Ateak ireki dituztenetik «berezik gaztetxo kuadrillak etxerako lanak egitera, ordenagailuetan ibiltzera eta ikastera etortzen dira. Baina, oro har, adin guztietako jendea dabil, badirudi herrian horren beharra zegoela». Ez da liburutegiaren ardura hartzen duen lehendabiziko aldia. «Urnietako liburutegian» hasi zuen ibilbidea, «ordezkapen txikiak eginez». Ondotik, Baztango liburutegi «zoragarrian» ordezkapen bat egin nuen. Zarauzko liburutegian ere bi urtez ibili zen, «liburutegi ederra eta asko ikasteko aukera eskaini zidana». Gerroztik, «oposaketak egin eta laugarren postuan gelditu nintzen». Orain «Leitzan egonen naiz». Liburutegi hori «jendeak egiten du berezi, bere hortan ez litzateke ezer izanen, eta bertara doazenentzat ere aparteko tokia dela pentsatu nahi dut». Berriz ere oposaketak atera arte behintzat hor izanen da eta oposaketetarako «buru-belarri prestatuko naiz, orain dudaren plaza betirako izan dadin, oso pozik bainago». Irakurtzea «deskonektatzeko bidea» da Harkaitz Delgadoarentzat, eta irakurtzeko «momentu hobereena gaua, lo hartu aurreko irakurlea naiz». Liburu onak irakurtzeak «asetzen» du. Aitzitik, «alferrikako irakurketak» ez dio onik egiten. Hasieratik «ateak irekitzeko bide eman ezean, nekez bukatzen dut liburuak, eta tamalez, bukatu gabeko liburuak zerrenda irakurritakoena baino dezente luzeagoa da». Pertsonalki, «liburu motzak eta barrenak mugitzen dituztenak» gustatzen zaizkio, eta halakoren bat gomdendatzekotan «Atiq Rahimiren *La piedra de la paciencia* aukeratuko nuke». Edonola ere, «irakurlea ezagututa errazago egingen nuke aukeraketa». Beraz, aholkuren bat behar duenak badaki non aurkituko duen aholkularia!

«*Bitxia da, normalean irakurleak dira liburuzaino aholkua ematen dizkigutenak. Nik aurretik irakurlea ezagutu nahi izaten dut*»

Herri-galdeketa bultzatzeko bertso-afaria Arantzokan

Martxoaren 17an 21:00etan Malerreka eta Baztango bertsolariekin.

Zinema

ETXALAR

'Loreak' filma

Martxoaren 9an 19:00etan Kultur Etxean.

Azokak

DONEZTEBE

Baztan-Bidasoko

III. stock azoka

Martxoaren 10ean eta 11n kiroldegian.

BERA

Bertako ekoizleen merkatua

Martxoaren 10ean 10:00etatik 13:30era Ricardo Baroja eskolako arkupeetan.

ELIZONDO

Baztango artisau elkarte

Martxoaren 17an 10:00etatik 14:00etara Elizondoko plazan.

Mendi irteerak

BAZTAN

Mendigoizaleen ateraldiak

Martxoaren 11n Gartzipot-Egutegi, 08:00etan abiatuta. **Martxoaren 17an** Astigarra-ga-Oiartzun, 07:00etan.

SENPERE

Spucasterka taldearen

10. urteurrenaren harira

Martxoaren 10ean eta martxoaren 11n hiru lasterketa eta bi mendi itzuli.

ETXALAR

Bortzirietako Emakumeen

IX. Mendi Itzulia

Martxoaren 11n 09:00etan irteera aparkalekutik.

BERROETA

Bertako zuhaitz espezie eta bariatateak ezagutzeko

Martxoaren 24an Xabier Zabaletarekin, 09:00etan.

ETXEBIZITZAK

salgai

ELIZONDO. Akullegin 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 55.000 euro. ☎646 774117.

ITUREN. Hainbat neurritako apartamentuak hagitx prezio interesgarrian salgai. ☎948 451337 / 667 275013.

ANZABAL**INMOBILIARIA**

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabek salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian Eskariagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI. Bizitzera sartzeko etxea salgai. 1.100m²ko partzelan. Eguzkitsua. Bista onak.

DONEZTEBE Aukera: 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

T. 948 580 804
www.anzabal.com

BERA. Duplexa salgai, Errotazar 5. zenbakian. Sukaldea, egongela handia, 2 logela, bainugela eta komuna. ☎648 265663.

ARANTZA. Herrigunean, etxea salgai, bi baratzekin. ☎0033641 814786.



BERA. Azkaine karrika -ko 12. zenbakian (2. ez kerra), 90m²ko pisua salgai. 3 logela, jangela, sukaldia, kanpora ematen duten bi bainugela, bi balkoi handi eta trastelekua. ☎634 263589.

ORONOZ. Etxebizitza salgai. 5 logela eta 3 bainugela. Sukaldea, jange-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako ES86 3008 0080 5607 0330 4329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

la eta trastelekua. ☎677 072437.

LEGASA. Pisua garajearekin salgai. 3 gela, egongela, sukaldia eta komuna. Dena berritua. ☎696 266907.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

OROPESA. 2 logelako apartamentua errentan emateko, parking eta trastelekuarekin. Hondartza ondo-ondoan dago, lehenengo ilaran. Hondartzak berdegu -neak ditu eta leku lasaian dago. ☎607 119094 (whatsappz edo deitu).



BERA. Altzate karrika, 26an, herri erdian, 90m²-ko pisu berritua errentan emateko. 2 logela, sukaldia-jangela handia, terraza eta lorategiarekin. Berokuntza zentrala. Iparraldera eta hegoaldera ematen du. ☎650 981950 / 948 631658.

LESAKA. Pisua errentan emateko. Ganbara, baxera eta lurreko sua ditu. ☎943 633430.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

LESAKA. Lanean ari den gizonezko arduratsua baten pisua errentan hartu nahi du. ☎666 778798 / 679 210910.

GARAJEAK/LOKALAK

salgai

LEITZA. Landa jatetxe-aren elkarte gastronomiko

edo soziedade bat egiteko partaidetzak salgai. Bazkidea izan nahi baduzu, deitu. ☎629 713172 (Juanjo) edo 628 851331 (Mireya).

**GARAJEAK/LOKALAK**

errentan emateko

IRUÑEA. Ile-apaindegi berri bat errentan emateko, Buztintxuri eta Artika Berri artean. Esperientzia duen pertsona barentzat. Gaur egun lanean bezeroekin. 850 euro hileko. ☎636 181546 / 948 067071.

LANA

eskaintzak

BERA. Bulego batean aholkularitzan eta areta komertzialean lanean aritzeko jendea behar da. Ez da esperientziarik behar eta adinak ez du axola. Eskualdekoa bada hobea. ☎948 631650.

ZUGARRAMURDI. Ostatu batean euskaraz eta gaztelaniaz dakien zerbitzaria behar da. ☎948 599022 (10:30-17:00).

3 eta 7 urteko **bi haur zaintzeko pertsona** behar da. Bortziriak inguruko, **euskalduna** eta kotxearekin. Printzipioz arratsaldetan bakarrik. ☎609 575814.

URDAZUBI. Montxo ostatuan bi zerbitzari behar dituzte. Bat egun osoan lanean aritzeko eta bertzea asteburuetan. ☎675 332124 / 622 808664.

BERA. Larungo benta batean frantses pixka bat dakien gizonezko zerbitzaria behar dute 6 hilabetez lan egiteko. ☎607 566022.

Baztango baserri batean langile bat behar dute, abeltzaintzako eta nekazaritzako edozein lanetan aritzeko. ☎616 443380.

ZUGARRAMURDI. Katalin jatetxean zerbitzari bat behar dute asteburuetan eta udan lan egiteko. Frantses pixka bat jakitea eta esperientzia izatea beharrezkoa da. ☎948 599009 / 948 599146.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA** (otsailaren 16tik 23ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 55 €

Zerri gizena
1,076€ kiloak.

Zerramak:
0,590 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/k Kanal

Extra 4,35

1.koa 4,13

2.koa 3,93

Urruxak: €/k Kanal

Extra 4,37

1.koa 4,23

2.koa 4,03

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 160,00
idixkoak 200,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 185,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,29/3,39
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 6,00/6,60
8-10 kilokoak: 5,90/6,50

LANA

eskariak

Adinduak edota haurrak zaintzeko edo garbitasunean aritzeko emakume bat lan bila. ☎644 778212.

Esperientziadun mutila lan bila. ☎661 180581.

Adinduak eta haurrak zaintzeko lan bila. ☎631 788143.

Esperientziadun emakume bat **haurrak edo adinduak** zaintzeko prest. ☎657 484195.

Esperientziadun emakumea adinduak edota haurrak zaintzen edo garbitasunean aritzeko lan bila. ☎639 311479.

Baztango 28 urteko neska batek administratzen, personak zaintzen (tituluduna eta esperientziaduna), saltzaile edo zerbitzari bezala lan egiten luke. Kotxe propioarekin. ☎649 901395.

Eskualdeko 24 urteko neska batek goizez lan egiten luke. Ostalaritza eta haurrak zaintzen aritua. ☎609 228926.

Umeak zaintzen esperientziadun neska lana behar du. Bi urteko esperientziarekin zenbait Haur Eskoletan, baita udan haurren zaintzan ere. Umeren bat zaintzea behar izanez gero, deitu edota jarri harremanetan whatsapp bidez. ☎675 336624.

Adinduak zaintzen edo garbitasunean aritzeko **esperientziadun emakumea** lan bila. Nahiago interna moduan. ☎689 188670.

Hainbat lanbidetan **esperientzia duen mutila** lan bila. ☎622 015725.

Haurrak zaintzen, garbitasunean aritzeko... **esperientziadun neska** lan bila. Interna edo orduka. ☎682 693911.

Adinduak edo haurrak **zaintzen edo garbitasunean** aritzeko neska gazte bat lan bila. Esperientzia adinduak zaintzen, eri dauden pertsonak zaintzen eta garbitasunean. ☎644 963709.

INDAUTO TAILERRAK *leite!*
Mekanika | Elektrizitatea
Pneumatikoak



Citroen Berlingo 1.6 HDI
86.000km | 2014. urtekoa | Alboko atearekin



Peugeot partner 1.6
Blue HDI | 100 zakoi | 41.000 km | 2016. urtekoa
Pol. Ind. Ordoki ARIZKUN - www.indauto.es
T. 948 453 488 - M. 675 324 960

Adinduak zaintzen edo garbitasunean aritzeko lan bila. Adinduak zaintzen esperientzia. ☎635 296717.

Esperientziadun gizonetzkoa lan bila. ☎631 090631.

MOTORRAK
salgai

Peugeot 307 autoa salgai. 2007koa, 138.000 KM, 5 ate, gris aluminio kolorekoa, IAT-ITV pasatua eta doikuntzak egindakoa. Korrea 102.000 KMrekin egina. Egoera onean. ☎687 926414. lbancrash666@gmail.com.



Peugeot 308 HDI Sport autoa salgai, 110 CV. Argi automatikoak eta abiaduraren kontrolarekin. Bizona klimatizagailua. Laino-argiak, eta hagin edo llantak alineatuta. 2010-eko maiatzekoa. Beti garajejan egondakoa da eta egoera hagitzen onean dago. Aukera paregabea. Prezioa: 6.800 euro. ☎696 290759.



BERAKO TAILERRAK
MITSUBISHI L200



DIESELA

MINAUTO AIXAM



Karnetik gabe gidatzeko
N-121-A errepidea 63.km BERA
T. 948 631 157 - 659 092 472

ZERBITZUAK
klase partikularrak

LESAKA. Klase partikularrak ematen dituzte: matematika, fisika, kimika, ingelesa, hizkuntza... unibertsitateko maila arte. Talde murriztuak. Esperientzia zabala klase partikularrak emateko. ☎605 762880 (Aitor).

BERA. Yoga eta meditazioa, goizez eta eguerditan. Lehenbiziko klasea dohainik. ☎627 395245.

ANIMALIAK
erosi

Ardi latxa mutur gorriak erosi nahiko nitzuke. ☎600 791961.

ANIMALIAK
oparitzeko

Labrador zakurra oparitzeko. ☎618 202395.

ANIMALIAK
salgai

Behi mestizoa salgai, **ernari.** ☎634 655571.

DENETARIK
salerosketak

Belar xehea fardo ttikitant salgai. ☎618 962774.

Rack armairua salgai, 19" 9U 60x45x50 cmko neurriak. Prezioa 35€ ☎948 635458.



SANTESTEBAN TAILERRAK



8.500€
CLIO IV BUSSINESS
DCI 75 CV 2015 urtekoa
57.000 km



6.900€
KANGOO PROFESIONAL
DCI 75 CV 2011 urtekoa
134.000 km



Hemen dago **DACIA DUSTER berria!**
ETORRI PROBATZERA!!!
Leitzako errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282
doneztebe@red.renault.es

hemen agertu nahi duzu?
egin zure erosketa **erran.eus** en

Tximinia salgai, prezio onean. ☎660 926425 (Pello).



Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,73 metro x 34 cmko neurria. Forma borobila. ☎948 585036.

IRUN. Taxi lizentzia eta egoera onean dagoen taxi (Toyota Prius) salgai. Lan dezenterekin. ☎679 568030.

Ile-apaindegiko bi aukeri eta **paretako sekadore** salgai. Estreinatua gabeak. ☎660 238654.

XX. mendeko altzariak salgai. Rustikoak, in-txaur-zuhaitzaren egurrarekin egindakoak, lixa-

KATEA BIKE

2. eskuko bizikletak





Kanthonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net

IRAGARKIA
2 aldizkaritan + interneten
10
EURO

tuak eta tratatuak. ☎617 661540. (Konpromisorik gabe ikus daitezke).


Gela salgai, 2 ohe 1,05 metroko koltxo eta guzti, mesanotxea eta 2,70 x 2,40ko armairuarekin. 300 euro. ☎648 016729.



Gela salgai, 1,35 metroko ohea koltxo eta guzti, 2 mesanotxe, sinfornera ispilurekin eta 1,68x1,90ko armairua. 150 euro. ☎648 016729.



PLAZAN BAZAN



B C D E F G H I J K L M N O P R S

Asma ezazu mezu ezkutua. Erran zahar bat da.



A



T



U



X



Z

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)



	B			A	K
A	E		B	H	
	H	A	I		E
	I		H	B	
	A			E	
	K			I	



BEHIAK



BEHIAK hitza osatzen duten hizkiak erabiliz, osa ezazu SUDOKUA. Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eu/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eu/kioskoa/soluzioak




IKUSI MAKUSI

Goiko laukian dauden elementu guztiak beheko laukian ere badaude, lau izan ezik. Zeintzuk dira?



OSATU



Erdizka margotuta dauden zazpi irudi hauetatik hiru elkartzuz gero, etxea behar bezala osatuko duzu. Batura horretan elementuek (kea, teilatua, atea...) behin bakarrik agertu behar dute koloreztatuta. Har ezazu kolore zuria gardena balitz bezala.

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,55€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



Martxoaren 21ean urteak beteko ditu Lakuntzako **LIDE SAN SEBASTIAN** ARRAIZAK. Zorionak eta besarkada erraldoia familiaren partetik.



AROA LARRETxea DE MATEO beratarak 9 urte beteko ditu martxoaren 13an. Aunitz urtez etxeko sorgintxoari. Ezetz prestatu berendu goxoa?



Sunbillako **AINHOA ARMENDARIZ AIZKORBEK** 6 urte bete ditu otsailaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat familia osoaren partetik. Aunitz urtez, polita!



MILAGROS IRAZOKI ARRIETA sunbildarra aunitz urtez zure 83. urtebetetzean. Muxu haundi bat Urdazubiko Pablo Irazoki eta Alizia Olaizolaren partetik.



Aunitz urtez **JOXEMA, AITOR, JOXE eta ANARA!** Martxoaren 16an, 18an eta 28an urteak beteko dituzte. Aurtengo martxoan ere gosari ederrak espero ditugu! Ongi pasa zuen urtebetetze egunetan!



Arantzako **ALAZNE BALEZTENA** Goñik 6 urte beteko ditu martxoaren 14an. Zorionak familia guztiaren eta batez ere Aiert eta Aimarren partetik.



Etxalarko **MALEN INDBERE** SANZBERROK 7 urte beteko ditu martxoaren 9an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Donezteboko **ALAI A IRIBARREN GONZALEZ** 7an 18 urte bete ditu. Aunitz urtez **ALAI!** Muxu haundi bat Itziarren partetik!



Elizondoko **JANIRE URREAGA IBARRAK** 6 urte bete ditu martxoaren 5ean. Zorionak Sunbilla eta Elbeteko familiaren partetik!




Arraizoko **LUKEN LAURNAGARAI PEROTXENAK** martxoaren 8an urte bat beteko du! Zorionak familia guztiaren partetik! Muxu aunitz!



Sunbillako **EKIÑE BERTIZ ARIZTEGK** otsailaren 23an 9 urte bete zituen! Ze neskatxa ari zaren egiten! Muxu handi eta potolo bat zure familiaren partetik, bereziki Jone zure ahizpa eta Joanes, Urki eta Haritz lehengusuen partetik!!!!



Urte askoz **EGOI eta EÑAUT BIDART ZABALETA!!** Gora gure artistak!!! Besarkada haundi bana amatxo eta aitaoren partetik.



Inuritako **SAIOA PEROTXENA DANBORIENAK** martxoaren 16an 10 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik! Muxu aunitz!

12+1 FESTIVAL @ LUR

MARTXOAK 10, LARUNBATA

MAIN ROOM. MUSIKA ELEKTRONIKOAK

MARIO BIANI EL ROW/BCN
DARIO NUNEZ BACCANALI IBIZA
JAVI COLINA WE PROJECT/INSERT COIN
CINTHYA NES-K NEW GUASS REC
PIEK LUR

MAGIC MOMENTS **LUDOVIC QUAI7 / 2OCTAL** LUR
AIMAR / ASIER BARBURU LUR
XINTO / BENOA / ADV
BORJA RAZKIN / DAVID IBERO
REDER / MIKEL CARVALHO

JOSU RODRIGUEZ BATAPLAN
MIKEL SEVILLANO LUR/INDARA
MIKEL ALMARAZ SINGULAR CLUB
JAVI LAZ

IREKIERA 19:00H - ITXIERA 08:00H // AURRETIK EROSI+KOPA 12€ // LEIHATILAN+KOPA 15€

GATIBU
+triki.DANTZ

ELIZONDO | LUR ARETOA

MARTXOAK 24 LARUNBATA Ate irekiera 22:30

SARRERAK: 15€+gg/18€
 online: gatibu.sarrerak.eus
www.luraretoa.com

SALMENTA PUNTUAK: -ELIZONDO | Mendi Pintza
 -DONEZTEBE | TITI ostatus
 -BERA | Errekelde ostatus
 -OIRATZUN | Laia taberna

#askemB
 f t i s s
www.gatibu.eus

PANDA
 CEST MANAGEMENT



BAR DOAK 2018
nafarroako taldekako bertso ekimena

MARTXOAK 9
LEITZA ATEKABELTZ GAZTETXEAN. 22:00ETAN.
ALDATZEA KOMENI – IBARDIN: HIRU TA LAU DIRA ZAZPI

ERRATZU ZUBIPUNTA OSTATUAN. 21:30EAN.
ADDAMS FAMILIA – TOPA BARDO KOPA!

MARTXOAK 11
LESAKA ARRANO ELKARTEAN. 17:30EAN.
UNIBERTSOLARIAK – (LARRAUN DA ARAITZ) BI DOZENA

informazio osoa
www.bertsozale.eus

Antolatzailea Laguntzailea
 

ALMACO BAZTAN

www.almacobaztan.com

GRUP **GAMMA**

ARRAS
PREZIO
BAXUAK

merkealdia

MARTXO
BUKAERA
ARTE

**ESKAINTZA
IKUSGARRIAK
ERAKUSKETAN!**

manparak **-%70**

dutxaontziak **-%30**

-%40 **%15**

-%60...

altzariak, **txorrotak,...**

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Ko(k)ontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

704 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Martiko - Lote bat

Kontxesi Arangoa Arburua | ETXALAR

Irrisarri Land - 2 sarrera

Juana M^o Urriza Indart | URDAZUBI

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Maitte Sarobe Mitxelena | LEITZA

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

M^o Dolores Erasun Elizalde | IRUÑEA

Ibaizabal - 2 liburu

Lourdes Antxorena Elizalde | ZIGA

Okille tailerra - Eguzkilore bat

Isidoro Goia Fagoaga | ARANTZA

Elkar - Liburu bat

M^o Rosario Bergara Mihura | AZPILKUETA

Elkar - Liburu bat

Anabel San Miguel Azpiroz | DONEZTEBE

2 tiket



BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com

2 sarrera



ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.es



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

LESAKA

www.lesakakoudalkiroldegia.com



2 sarrera

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



2 sarrera helduentzat

**MU
SI
KA**

HARA!

idazkioak, minak eta desirak

HARA!

idazkioak, minak eta desirak

Hara!

adizkioak, minak eta desirak

baga-biga

MUSIKA IDEIAK

www.baga-biga.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.ibaizabal.com



www.arkupegozotegia.com